

...eta!
Kitto!

2018-IV-6

1052 zkia.



Gurpil gosea asetzeko hiru izarretako menua



Toribio Etxebarria, 1

EUKI
servicios inmobiliarios

*20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan*



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAKITZEN

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 14 11:00
Maiatzak 23 18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produksioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



**LAN BATERAKO
AURPEGI BARRIXEN BILLA GABIZ!
KAMARA AURRIAN LOTSATZEN
EZ DAN HORRETAKUA ZARA?**

**11 EGUNEZ
ESPERIENTZIA BARRI BAT
BIZITZEKO PREST BAZAGOZ,
ERRONKA POLITTA DAKAGU
ZURETZAT!**

**EMON IZENA
APIRILLAN 20-KO**

CASTING-ERAKO

www.akebai.eus/casting

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maialen Belaustegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Ignacio Zuloaga BHI ikastetxeak 50 urte –

Hasten den guztiak amaitzea du zor, eta maiz garaia agintzen du noiz eta zelan. Halere, ezer ez da desegiten guztiz, eta ezer ez da hutsetik ere sortzen; izan ere, aldaketa etengabea da mundua, bitzita eta gure institutua ere bai. Horrela bada, Ignacio Zuloaga institutua sortu zenetik 50 urte betetzen diren honetan, ospatzea, eskertzea eta agurtzea, dena batera egitea gertatuko zaigu. Ospakizunetarako, egia esan, ez dugu ia astirik izan, ezta izango ere; oso modu xumean egingo da egitekotan ere, betiko jardunean txertatuz, piroteknariak gabe. Egunerokoari behar bezala erantzutearekin, praka bete lan.

Eskertzearena neurritz gain luza liteke, eta denak nolabait biltzearen, gure eskerrik onena adierazten dizuegu ikastetxean ikasi, irakatsi, garbitu, bestelako lanak egin, abestu, dantzatu, musika jo, bertsotan egin, eztabaidatu, sufritu, ligatu, gozatu

edota hemendik isil antzean, hanka puntetan bezala, pasatu zaretzen guzti-guztioi. Eskerrak gugan konfiantza jarri duzuen gurasooi ere, ahaleginean gurekin batera egon eta egin duzuenoi. Eskerrak ibilbide osoan zehar gure aliatu izan diren Eibarko talde, erakunde eta herritarrei. Eta zelan ez ba, eskerrak gure berri herrian zabaltzen lagundu diguzuen ...eta kitto! taldeari ere. Ezinbestean luzatu egin zaigu eskertzearena. Eta agurtzen hasita, izenari esango diogu agur, aurrerantzean Eibar BHI izena hartuko baitu hiru ikastetxe baturik (Itzio, Mogel-Isasi eta Ignacio Zuloaga) osatuko dugun eskola berriak. Dena den, izenari agur esaten diogun moduan, aurrean dugun erronka ere agurtzen dugu, “ongi etorri!” esanda. Etorriko denari helzteko prest gaude eta ari gara, ilusioz eta asmorik onenarekin.

Ignacio Zuloaga BHI-ko Zuzendaritza

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MALKO.- Negarra, negar egitean begietatik irtetzen den likidoa. Gaztelarazko ‘lágrima’.

“Haren arpegixan, malkuak diamantiak ziran”.

MALKUAK ATARA.- Negar eragin. “Abadiak sermoiarekin malkuak atara etsazen elixan eguzeneri”.

MALKUAK URTEEN.- Negar egin. “Ikustiakin bakarrik malkuak urten deste”.

astean esanak

“Non egiten dira *selfie* gehiago? Jende gehien dagoen tokian, Txinan eta Indian. Ez hori bakarrik: iaz 68 lagun hil ziren *selfie*a ateratzen zuten bitartean, gerra-uneetan dauden argazki-erreportariak baino gehiago. Mundu modernoak ekarri diguna! Horregatik diot Donostiako olatuak ere arriskuak direla, kontuz ibili behar da hiri horretan. Batez ere farfala eta harrosko garelako. Niri ere, sasoi batean, liburuak sinatzea eskatzen zidaten; orain, aldiz, zain egon ondoren *selfie*a egitea eskatzen didate, batez ere 30 urtetik beherakoan kasuan”

(MARTIN PARR, ARGAZKILARIA)

“Azken Oscar-ak banatu zituztenetik ia derrigor betebeharreko hitzarmenak ez du ez hanka ez bururik. Bertako klausulek diotenez, aktore-taldean zein filmatzekoan, eta gutxienez kasu guztietan, %50 emakumezkoak izan behar dira, %40 dibertsitate etnikokoak, %20 gutxiagotasuna dutenak eta %5 LGTBI norbanakoak, guzti hori gure gizartea islatzeko”. Ezaugarri horiekin zeinek filmatuko zuen ‘El Padrino’? Badirudi Stacy Smith dela ekimenaren sortzailea, 2007tik 2016ra arte egindako pelikuletan pertsonaietako %70 zuriak zirela, %14 beltzak eta %3 hispanoak ikusi zuelako. Badaki sexista horrek bere gizartearen proportzioa hori dela?”

(JAVIER MARIAS, IDAZLEA)

“Euskarak mundua oso era zuzenean deskribatzen du: ilargia argi hila izatea; emakumea, umea daukan emea; itsusi hitzak itsuarekin duen lotura, zerbait ikusi nahi ez duzunean... Euskaldunen izaera jatorrarekin lotuta dagoela uste dut: hizkuntzak errealitateari eusten zaitu. Hizkuntza latinoetan hitzen sustraiaik galdu dira, hizkuntzok errealitateetik urrutiago zaituzte. Euskara Europa osoaren kultur katedral bat da. Europar guztiok ikasi beharko genuke. Kontzeptuak erroaren bidez ulertzeko ahalmenak gardentasun mota bat ematen ditu mundua deskribatzerakoan, ukituko bazenu bezala, eta zorrotza guztiz”

(RAFAEL YUSTE, NEUROBIOLOGA)

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Udaberriko erosketa-bonuen kanpaina hasi dabe

Martitzenian ekin zetsen udaberriko erosketa-bono kanpaina Eibarko dendari eta tabernarixak. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez abiatutako kanpaina aurreko ediziñuetako dinamikari jarraituko detsa: 40 euro ordainduta, 50 euroko gastua egitteko aukeria izango dabe bonua erosten daben eibartarrak, kanpainaarekin bat egin daben ixa 200 establezimendutan. Azaldu dabenez, bi bono ezberdin etara dittue: bat denda eta tabernetan erabiltzeko eta bestia, barriz, gasolindegixetan ordaintzeko. Bonuak erosteko, bestalde, EMGI-aren bulegora (Untzaga Plaza, 7; Artola jatetxiaren aldamenian) juan biharko da (astelehenetik eguenera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:15etara eta barixakuetan 08:00etatik 14:45etara). Maiatzaren 13ra arte egitten diran erosketetarako balixo dau bonuak. Alkarteko ordezkariak azalduetakua arabera, apirillaren 11ra bittartian lagun bakotzeko bono bakarria salduko dabe, baiña hortik aurrera salmenta zabaldu egingo dabe eta bono bat baiño gehiago erosteko aukeria egongo da (lagun bakotzak gehixen jota 10 bono erosi ahal izango dittu).



asteko
7.000
datua

lagunek aprobetxau dittue Eibarko Antzerki Jardunaldixak lanen bat edo gehiago ikustera juateko. Ikusle gehixen (487) bildu dittuan lana 'Los visitantes' izan da; 'Los universos paralelos' lana ikusten 472 lagun egon ziran eta 'El oxímoron de la abuela' lanak be 400 lagun baiño gehiago erakarri zittuan.

Itsas eta haize energixari eskindutako jardunaldixak

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko Atalak "Itsas eta haize energia" jardunaldixak antolatu dittu datorren asterako, eguazten eta eguenerako. Jardunaldixetan, bestiak beste, azken urtiotan itsas energixan, batez be olatuen energixan, eta energixa eolikuan egitten ari diran ikerketen barri emongo dabe. Horretarako MAXwind-Hispavista enpresako ordezkariak eta UPV/EHUko ikasle eta irakaslien parte hartzia izango dabe. Hitzaldixak euskeraz eta gazteleraz izango dira eta energixa barrixen inguruan interesa dakan edozeiñek izango dau sartzeko aukeria. Egun bixetan 15:30etara hasiko dira hitzaldixak, Unibersidade Laboralian dagan San Andres aretuan.





Dual Jardunaldixa antolatu dabe Armerixan

Datorren egunenian, Ana Ramos ETBko kazetari eibatarrak moderatutako Dual Jardunaldixa egingo dabe Armerixa Eskolan. Saiua enpreseri zuzenduta antolatu dabe, "Lanbide Heziketa Dualak eskintzen dittuan aukeren inguruan gehixago jakin deixen". Sarrerria nahi dabenendako zabalik egongo da eta, aurretik izena emon nahi izanez gero, idazkaria@armeriaeskola.eus helbidera idatzi leike. Antolatzailliak diñuenez,

"Heziketa Dualak bihargin kualifikatuak, Euskal Herriko enpresen premiñetara egokitutakuak preparatzen dittu eta horrek enpresen lehiakortasuna areagotzen dau". Programia 12:00xetan hasiko da, aurkezpenarekin, eta jarraixan egingo diran hitzaldi eta mahai-inguruan ikasketa mota horrek dittuan ezaugarri eta abantailleri errepassua egingo detsez. Luntxak eta networking saiua itxiko dabe jardunaldixa, 13:30ak aldera.

Zaporeak Untzagan izango da gaur be

Gaurko etaparen amaieria aprobetxatzeko, Zaporeak-ek ekitaldi berrira antolatu dau Untzagan, modu horretan erre-fuxiatuen kanpamenduetarako dirua biltzeko asmuarekin. Herriko hainbat taberna (O'Jays, Kontent, Koskor, Kultu, Bossa, Chic, Slow, Ongi Etorri, Beleko, Portalea, Irurok, Bar Cepa eta Bar Nuevo) eta *Amaña es la caña* kolektibuak 1.000 pintxotik gora prestatu dittue pin-

txo-pote solidarixua egitteko. Beste ekitaldixen artian, 18:45etik aurrera Eibarko trikitilarixak hasiko dira kalia girua jartzen eta 21:00etan hainbat kirol alkartiak eskindutako kamisetak zozketatuko dira. Untzaga plazan 16:00etatik ipiñiko dittu mahaixak erroparekin eta gero zozketatuko diran kamisetekin. Jendiak badaka kolaboratzeko beste aukerarik be: higienarako gauzak eta janarixa eruanda.

autuan

LAN-ESKINTZAK UDAL WEBGUNIAN

Udalak zerbitzu berrira emongo detse Eibarko enpreseri, jendiari euren lan eskintzen barri emon ahal izateko udal webgunian horretarako atala sortuta. Udalak hor argitaratu aurretik, baiña, enpresa horrek berraien webgunietan lan eskintzak argitaratu biharko dittue, ele bixetan. Zerbitzuaren inguruan interesa daken enpresak komunikazioa@eibar.eus helbidera mezua idatzi biharko dabe.



HAZILAN AZALTZEKO SAIUA

Debegesa garapen agentziak Hazilan programaren 5. ediziñua ipiñi dau martxan eta, horren harira, martitzenian parte hartzeko interesa daken guztiendako informaziñosaiua egingo dabe Debegesaren egoitzan, Azittaingo industrialdian, 12:00xetan. Hazilan programia 20 eta 44 urte bittarteko langabetueri zuzenduta dago. Bestalde, izena emoteko epia apirillaren 20ra arte luzatu dabe.

III. Gin Tonic lehiaketa

Aprifaren 13tik 15era

Aprifaren 20tik 22ra



Finala:
Maiatzaren 4an
Untzaga plazan



Ate Irekixen jardunaldixa antolatu dabe eguaztenerako Deparkelekuak

Datorren astian, apirilak 11n Parkinson gaitza gogoratzeko eguna izango da mundu mailan eta, horren aitzakixarekin, Eibarren jardunaldi berezixa egingo dabe Deparkel Debabarrena Parkinson alkartekuak: Ardantza kaleko 1. zenbakian dagan lokaleko atiak herritar guztieri zabalduko dittue arratsaldian, 17:00etan hasi eta 19:00ak arte. Ate Irekixen jardunaldixa antolautu Deparkel alkartian egitten daben biharra ezagutzera emon nahi dabe eta, horretarako, gerturaten diraneri azalpenak emoteko gertu egongo dira alkarteko kidiak. Jardunaldixa antolatzen diharduenak aurreratu dabenez, "alkartian egitten doguna ondo azalduta ipiñiko dogu lokalaren kanpoko aldiari, dana ondo antolautu, holan etortzen dan jendiak gure tresnak, jokuak... lantzen dittugun guztiak bertatik bertara ikusteko aukeria izateko. Alkarteko kidiak be han egongo gara, informaziñua emoteko prest. Gaixotasuna dakenak, fisio-



terapeuta, psikologua, direktibako kideren bat... han egongo gara, jendiak dittuan zalantzak argitzeko edo galdereri erantzuteko. Arratsalde berezixa izatia nahi dogu, merienda be preparauko do-

gu, datozenekin batera jateko. Alkartearaño ahalik eta jende barri gehixen erakartzia gustauko litxakigu".

Españiako Parkinson Federaziñuak aurtengo kanpaignarako aukeratu daben goiburua "Lo que más me duele del Parkinson es cómo me miras" da, hain zuzen be gaixotasunaren estigmatizaziñuari moduren batian aurre egitteko. Deparkeleko ordezkariaren berbetan, "arazua gaixotasuna onartzia izaten da sarrittan, gaixorik egon arren aurre egittia eta inguruko jendiak gaixorik daguana onartzia eta ez baztertzia".

Eguaztengan gerturatzeko aukerarik ez dakanak, bestalde, Deparkelera beste egunen batian jua ezker gaixotasunari zein alkartiak eskintzen dittuan zerbitzuen inguruko informaziñua emongo detse. Bulegoko arreta ordutegixa 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitartekua da, astelehenetik barixakura. Interneten be web orrixa daka alkartiak, www.deparkel.org helbidian.

O'Donell kaleko bonbari buruzko hitzaldixa egingo da Udal Artxibuan

Datorren eguenian "O'Donell kaleko bonba: lehertu zen ala ez?" izenburuko saio berezixa hartuko dau Eibarko Udal Artxibuak, 1937ko apirilaren 24an faxisten abioiak bota eben bonba goguan. Federico Rodriguez ingeniuruak gertakizun horren inguruan hitzaldixa emongo dau eta, entzutera jua nahi dabena, aurretik izena emotia eskatu dabe, egoibarra@eibar.eus helbidera idatzitta edo 943708423 telefonora deittuta (azken eguna gaur da). Federico Rodriguez bilbotarrak urtiak emon dittu 1936ko apirilaren 24an Condor Legioak jaurti eban bonbaren nundik norakuak sakon eta zorrotz ikertzen eta datorren asteko saiuan horren barri emongo dau, 18:00etatik aurrera.



Iker Lakak segiduko dau EGlko idazkari karguan

Martxuaren 26xan barritu eban Kontseillua Eibarko EGlren Uri Batzarrak eta atzera be Iker Laka Barandika hautatu eben aho batez idazkari kargurako. Hortaz, Lakak beste bi urte emongo dittu gure herriko jeltzale gaztien buru izaten. Lakarekin batera, Uri Kontseillu barrixa Ivan Iriondok (idazkariordia) eta Asier Feijook (diruzaiña) eratuko dabe, azken bi urtitan kontseillukide izan dan Josu Mendicutek Feijoori lekukua pasau detsa-eta.



IGOR ATXA MANTECON


(2018KO MARTXOAREN 28AN HIL ZAN)



"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTIAN"

Piraten gelako gurasuak (J.A. Mogel ikastola)





Emakume musulmanak, arrazakeria eta sexismoaren aurka

SOS Arrazakeriak antolatuta, "Islamofobia eta generoa" tailarrak emongo dittue Andretxean. Prozesuaren aurkezpena apirilaren 14an egingo dabe, 10:00etatik 14:00-etara eta, hortik aurrera, beste hiru saio egingo dittue: maiatzaren 12kua lan-saiua izango da; ekaiñaren 16xan emakume musulmanak / ez musulmanak landuko dabe; eta uztaillaren 14an kaleko sensibilizaziñorako ekintza preparauko dabe.

Tailarrak egitasmo zabalago baten baitan eskinduko dittue. Izan be, SOS Arrazakeriak emakume musulmanekin prozesu bat abiar-

ziko dau Eibarren eta Erreterian, egunerokuan aurre egin bihar detsazen diskriminaziñuak identifikau eta zelan aurre egin antolatzeko. Azaldu dabenez, "prozesu hau iaz hazi genduan Gipuzkoako bost herrittako emakume taldiekin. Aurten prozesuan sakondu, bihar izanez gero andrak ahaldundu eta tokian tokiko politika publikuak egitten dittuen agenteeri proposamen bat aurkeztia izango da helburua. Berbia eta protagonismua andrak izango dabe, eurak erabagiko dabe zein gai eta zelan landu eta, horretarako, hiru tailar egingo dira emakume musulmanekin".


III. Gin Tonic lehiaketiak apirilleko bi asteburu hartuko dittu

Asteburu bittan (apirillak 13-15 eta 20-22) jokatu da Gin Tonic lehiaketaren 3. ediziñua. Lehiaketi...eta kitto! Euskara Elkar-teak sortutako Euskeraz Primeran! kanpaiñaren barruan egingo da eta parte hartu nahi daben tabernarixak gaur arteko epia dake izena emoteko. Aittatutako asteburu bixetan bezeruak lehiaketan parte hartzen daben tabernetako Gin Tonic-ak bozkatzeko aukeria izango dabe eta eurak emondako botuak

erabagiko dabe 3 finalistak zeintzuk izango diran. Finala, barriz, maiatzaren 4an izango da Untzagan, eta aurten be Oihan Vega etorriko da finala aurkeztu eta girotzera. Sari-banaketia finalaren egun berian egingo dabe, illuntzian. Irabazliak 300 euroko sarixa irabaziko dau, eta 2. eta 3. sailkatuak, barriz, koktelak egitteko kit bana. Bestalde, tabernetan botua emoten daben artian asteburuko egonaldi bat zozketatuko da.



Ametsak eta Amestik irabazi dittue oin arte jokaturako finalak.



A P I R I L A

					1		
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

E K A I N A

				1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		



M A I A T Z A

		1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

2018ko apirila-ekaina kultur eskaintza

Barixakuero ...eta kitto! astekaria
 Hilero Txikitto! umeen aldizkaria
 Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
 Itzulpenak eta diseinu-lanak



Euskara Elkar-tea

Urkizu pasealekua 11, solairuartea
 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 20 09 18
 elkar-tea@etakitto.eus
 www.etakitto.eus

...eta kitto! Euskara Elkarte



**Naiara Azpeitia
eta Juan Barahona**

**“...eta kitto!
beti izango da
gure parte”**



Ekitaldi desberdina eta hunkigarria izango da apirilaren 22an Coliseo Antzokian egingo duguna. 25 urte hauetan, modu batean edo bestean, ...eta kitto! Euskara Elkartetik gertu egon diren eibartarrak elkartu eta une atsegina pasatu nahi dugu. Oraingoan, euskara elkarte aspalditik eta oso ondo ezagutzen duten Juan Barahona eta Naiara Azpeitiarekin elkartu gara, eta eurek emandako hainbat zertzelada batu ditugu hurrengo lerroetan.

Orain dela 25 urte Juan Barahonak bat egin zuen Eibarren euskara bultzatzeko sortu zen ...eta kitto! Euskara Elkartearekin. Aurretik ere bazuen nolabaiteko eskamentua euskalgintza alorrean: “*Elkartea sortu aurretik Euskal Herrian Euskaraz-en ibili nintzen. Hortik ezagutzen nuen nik Fernando Muniozguren. Elkarte sortzeko Fernando alma mater moduan ibili zen, eta ez dakit zergatik, baina Fernando beti ibili da nire atzetik... Elkarteko estatutoak eta hasierako tramite guztiak egiten ibili ginen. Behin elkarte sortuta, beti ibili naiz hor modu batean edo bestean. Ondoren, El-*

karteko zuzendaritzan sartzeko ‘engainatu’ ninduen; ondoren presidente izateko...”. Urte hauetan elkartean oso gustura egon dela esan digu Barahonak, “*...eta kitto! nire izatearekin bat datorren elementua da nire bizitzan. Beste elkarte batzuetako bazkide ere banaiz, baina inoiz ez naiz hainbeste sartu. Niretzako ...eta kitto! beti izan da desberdina, euskalgintzan, euskararen alde ahalik eta gehien egiten duen elkarte delako, eta sentimentu hori eduki dut beti”*. Lan-taldean jarduteko norberak partaidetza sozialerako joera izan behar duela dio Juanek, “*badira pertsona asko oso pro-*

APIRILA

Apirilak 9, astelehena

Harixa Emoten literatur tertulia. “Atertu arte itxaron”, Katixa Agirre. 19:00etan Portalean.

Apirilak 13-15 eta 20-22:

III. Gin Tonic lehiaketa Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan.

Apirilak 20, barixakua

Barixakua Jolasian “Mural librea”. 17:00etan ...eta kitto!-n.

Apirilak 21, zapatua

Gurasoak Berbetan irteera Arditurriko meazuloetara.

Apirilak 22, domeka

...eta kitto! Euskara Elkartean 25. urteurreneko ospakizuna. 12:00etan Coliseoan. Gonbidapenarekin.

Apirilak 24, martitzena

Munduko Janari tailerra (Senegal), Berbetan programetako kideentzat. 18:00-20:00 Portaleko sukaldean.



Apirilak 25, eguaztena

Garagardo-dastaketa Illunabarrian programaren barruan. 19:00etan ...eta kitto!-n. 3€.

MAIATZA

Maiatzak 4, barixakua

III. Gin Tonic lehiaketaren finala. 20:30ean Untzagan.

21:30ean sari-banaketa.

Maiatzak 4, barixakua

“%100 Oion” Maite Arroita jauregirekin. Zurrumurru eta aurreiritziei nola egin aurre. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Maiatzak 9, eguaztena

Izozki-dastaketa Illunabarrian programaren barruan. 19:00etan ...eta kitto!-n. 3€.

Maiatzak 12, zapatua

Berbetan irteera, Bilbo Itsasadarretik.



Maiatzak 13, domeka

Herri Urrats Senperen. Autobusak antolatuko ditu ...eta kitto!-k.

Maiatzak 16, eguaztena

Ipurterre gutun eta ipuin lehiaketako sari-banaketa. 10:00etan Uniko Antzokian.

Maiatzak 18, barixakua

Barixakua Jolasian, lore-sortak. 17:00etan ...eta kitto!-n.

Maiatzak 19, zapatua

Tantanez Tantan euskararen aldeko ekitaldia eta Euskaraldiaren aurkezpena. 13:00etan

Urkizutik hasita giza katean, esku esku, gantxila Untzagaraino.

Maiatzak 22, martitzena

Biodantza saioa berbalagunentzat. 19:00etan ...eta kitto!-n.



Maiatzak 22, martitzena

Harixa Emoten literatur tertulia. “Huliganaren itzulera”, Koro Navarro-Norman Manea. 19:00etan Portalean.

Maiatzak 27, domeka

Ibilaldia Santurtzin. Autobusak antolatuko ditu ...eta kitto!-k.

EKAINA

Ekainak 2, zapatua

Mintza Eguna Hondarribian.

Ekainak 12, martitzena

Berbalagunen ikasturte amaierako afarimerienda.

Ekainak 14, eguena

Barixakua Jolasian, ikasturte amaierako jaialdia, Urkizun.

Ekainak 17, domeka

Euskal Jaialdia herri-kirol erakustaldia. 19:00etan Untzagan.

Ekainak 23, zapatua

San Juan sua.

duktiboak direnak, baina bakarrik ibiltzen direnak. Niri gehiago gustatzen zait konpartitzea, taldeko motibazioa. Urte asko eman ditut ...eta kitto!-ko zuzendaritzan eta oso jende desberdina pasatu da hemendik. Desadostasunak egon izan dira, normala da da, baina oso ondo egon naiz. Zuzendaritza sortzean joera handia egon da irakaskuntzako jendea aukeratzeko, ez dakit zergatik, eta uste dut hor bai komeni dela perspektiba desberdinak edukitzea, enpresa pribatuko jendea, gestiogintzako jendea... hori aberasgarria da".

Jende gaztea erakartzearen garrantziaz ere luze egin dugu berba. Denen ekarpena garrantzitsua bada ere, gazteena oso interesgarria eta baliagarria izaten dela uste du Juanek, "adin batekoek azkenean gauza berdinak errepikatzen ditugu, eta gazteak agertzen direnean belarren artean loreak sortzen dira. Loreak ondo zaindu eta ureztatu egin behar dira. Gazteen ikuspegia eta moduak desberdinak izaten dira". Zuzendaritza-taldeetan jende desberdina ezagutu du Juanek urte hauetan, "eta hori dela eta sortzen den emaitza eta jorrazeko bideak ere diferenteak dira".

Naiarak ere badaki jende gaztea erakartzea izan dela beti ...eta kitto!-ren erronketako bat, eta bera horrela hasi zela azaldu digu: "15-16 urterekin hasi nintzen elkartean, nik ere Fernando atzetik izan nuelako. Literaturari batzuk irabazi nituen adin horrekin. Koldo Mitxelena ere ezagutzen nuen. Sostoa abesbatzan berarekin eta Juanekin nenbilen. Fernandok harrapatu ninduen eta Kol-

"Agian jendea zirikatu eta beste estrategia batzuk erabili behar dira. Motibatzaile moduan badaukagu hor zer egin"

dok bideratu. Aldizkarian gazte talde bat sortu zen, bakoitzak ahal zuena aportatzeko. Ni orduan institutuan nenbilen eta gaztetxoekin lotutako gaiak hasi nintzen idazten, ikas-bidaia, eskoletako gaiak... Kazetari lanak nire atentzioa piztu zuen, kazetaritza ikasten hasi nintzen Leioan eta, orduan, erredaktore hasi nintzen aldizkarian".

Urte hauetan gauzak asko aldatu dira, eta baita komunikazio alorrean lan egiteko modua ere. Naiara Azpeitiak uste du ...eta kitto!-k, komunikabide moduan, egoera berri horretara egokitzea jakin duela, eta argi ikusten du, paperezko aldizkaria ahaztu barik, sare sozialez eta teknologia berriez baliatu behar dugula herritarrekin feedbacka lortzeko eta euskaltzaleak aktibatuzko, Berak gogoratu digunez, "niretzako ...eta kitto! familia eta eskola izan dira. Idazten ikasteaz gain, beste mila gauza ikasi ditugu: maketazioa, diseinua, publizitatea, inprenta lana, estuasunak... Batak besteari entzuten eta begiratzen ikasi dugu. Eibarko kazetari guztiak pasatu gara hemendik eta oso sartuta ibili gara. Traslado guztiak ezagutu ditut nik, eta lotura hori gaur egun beste modu batekoa bada ere, ...eta kitto! beti izango da gure parte. Hona etorri eta etxean bezala zaudete, eta hori jendeak egiten du, giroak".

Ondorengo urteetan berarentzako oso baliagarria izan zen irratiko lana ere ezagutu zuen Naiarak garai hartako Radio Estudion ...eta kitto!-k egiten zituen irratsaioetan. Kazetaritzan eta komunikazioan jardundakoa bada ere, Naiarak, Juanek bezala, irakaskuntza munduan dihardu lanean gaur egun. Gazteekin egiten dute lan biek eta egungo gazteek gizartean daukaten parte-harteari buruz egin dugu berba eurekin. "Corren malos tiempos para el asociacionismo" betidanik entzun dugula dio Juanek. "Ez da berria. Agian jendea zirikatu eta beste estrategia batzuk erabili behar dira. Motibatzaile moduan badaukagu hor zer egin. Gazteek iniziatiba desberdinak dituzte eta entzun egin behar zaie, eta zeozer egin nahi badute baliabide guztiak jarri behar dira euren eskura. Motibazioak diferenteak dira gaur egun". Naiarak gazteen egoera eta txipa aldatu egin dela uste du, "denbora gutxiago daukate, gu lasaiago bizi ginen. Gizartea asko aldatu da eta hori pixkanaka gertatu da".

Euskarak Eibarren bizi duen egoerari buruz Juanek azaldu digunez, "euskararekin beti tiraka ibili behar dugu, nik beti jorratu dut nire bizitza euskararen inguruan, baina egia da inguruko artean nolabaiteko desgastea somatzen dudala, beti tiraka ibili behar hori nekagarria egiten da". Bere ustez, euskararen erabilerari eman behar diogu garrantzia, jende arteko erabilerari eta kaleko presentzia sortu behar da, "oso inportantea da kalean euskara entzutea. Zertarako nahi dugu euskara, gero jende artean ez badugu erabiltzen?".



Koldo
(2014-IV-1)

"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitzardaska gazteak"

ZURE
LANKIDEAK

AMAIA IZETA RETOLAZA

1942-IX-19 / 2018-III-22

Ezagutu zaitugu xume bezain eder, hain soila zure heriotzean, eskuzabaltasun ta maittasunaz hain bete, ama, amama, lagun maitea oroitzapenean gudan zara.



ESKERRIK ASKO AMAIA, ESKERRIK ASKO AMA, ESKERRIK ASKO AMAMA. MAITTE ZAITTUGU. FAMILIAREN IZENEAN, gure eskerrik beroenak nahigabeen lagundu diguzuen guztoi.

Euskal Herriak bakearen bidea hartu du eta pausoak ematen dihardu helmugara iritsi arte. Hau da, bakera. Ipar Euskal Herrian eman dira batez ere pauso handienak eta gizarte zibilak hartu du horren ardura handia. Anaiz Funosas Bake Bideako lehendakariak oso gertutik bizi du prozesu hori eta Bakearen Artisauen esperientziaren berri emango digu datorren martitzenean, hilaren 10ean, 19:00etan Portalean. Gainera, Haizea Ziluaga abokatuak Ibon Muñoa eta euskal presoen egoera izango ditu mintzagai.



ANAIZ FUNOSAS

(Bake Bideako presidentea):

“Konbentzimendu haundiak eta arriskatzeko politikoak ekarri zuen ETaren armagabetzea”

- Aieteko Adierazpenean eman zen bakearen bideko lehen urratsa. Zein izan zen gakoa?

Aieteko nazioarteko konferentziak eta handik ateratu zen bide orriak perspektiba berria ireki zion bake bideari. Oso momentu azkarra izan zen ikuspegi ezberdinetatik. Lehenik eta behin, azken negoziaketa saiakeraren porrotaren biharamunean, nazioarteko goi mailako pertsonaltatez osatutako delegazio bat etorri zelako, aterabidea atzeman zitekeela esatera. Bestalde, lehen aldiz Euskal Herri osoko arduradun politikoak eta sindikalak bildu zirelako. Eta bukatzeko, Euskal Herriko gatazka politikoaren historian lehen aldiz izan zelako frantses estatua espainiar estatua bezala gatazkaren parte izendatua zela.

- Ipar Euskal Herriko gizarte zibilak bake prozesuaren bidea hasi zuen (eta horretan jarraitzen du gaur egun). Zergatik uste duzu Iparraldean eman zela eta Hegoaldean ez?

Iparraldean abagune berezi batean harrapatu gintuen Aieteko deklarazioak. 2004tik frantses estatutik zetorren errepresio zuzena pairatzen hasi ginen Ipar Euskal Herrian. Segi eta Askatasunako ki-

deen kontrako euroaginduak, Askatasunaren kontrako operazio poliziala eta, gainera, gazteria, Hego Euskal Herrian bezala, proiektu ezberdinen kontra jotzen hasi zen frantses estatua. Jon Anza militantearen desagerpena ere gertatu zen 2009an, haren gorpua 11 hilabeteren buruan atzeman genuen Toulouse aldeko ospitale batean. Tentsioa zegoen, gero eta jende gehiago deseroso sentitzen hasi zen errepresio honen aitzinean, eta Auroren kontrako euroagindua aplikatu zutenean modu kolektiboan honi elgarrekin aurre egitea deliberatu genuen. Militante honen defentsaz haratago gogoeta bat abiatu zen eragile eta hautetsien artean. Gogoeta honetan ginela iritsi zen 2011ko urriaren 17a, eta handik ateratako bide orria eta handik egun gutxira ETA erakundearen erabakia. Momentu historiko honen aitzinean Aieteko 4. puntuan gomendioari lotzea deliberatu genuen gizarte zibilaren parte hartzea sustatzeko asmoz, eta Bake Bidea mugimendu zibila sortu genuen 2012an.

Hego eta Ipar Euskal Herriko errealtateak oso ezberdinak dira, kulturalki gatazkarekiko bizipenak ezberdinak direlako,

baita eragileen arteko harreman politikoak ere. Aieteren biharamunean bi erritmo ezberdinetan garatu zen bake prozesua.

- Ordura arte ezagututako bideetatik aparte joan den mugimendua sortu zen 2011an Ipar Euskal Herrian. Gizarteak hartu zuen ardura, zeregina delegatu zen. Bake prozesua garatzea eragingarriagoa izango da bide horretatik?

Gizarte zibilak eta Aieten egondako arduradun politikoek hartu zuten ardura. Hastapenean, alde bakoitzaren eremutik lana eta adostasuna erakitzea lotu zen. Estatuen blokeoaren aitzinean berehala ohartu ginen gure arteko adostasun zabalera eta gizarte zibilaren aktibazioa zela estatuen jarrera aldarazteko modurik onena.

- Milaka lagun bildu ziren Baionan ETaren armagabetzea gauzatu zenean, eta Bilbon eta Parisen presoan alde egingadako manifestaldietan. Gizarteak badu zer esan, baina entzuten zaio?

Badu zer esan eta adierazi behar du.

- Herriak lortu du ETA armagabetzea?

Konbentzimendu haundiak eta arriskatzeko politikoak ekarri zuen ETA erakundearen armagabetzea gizarte zibiletik, eta baita frantses estatuaren jarrera aldaraztea ere.

- Zer ondorio ekarri zuten Luhusoko atxiloketek?

Hasteko, lurrikara. Eskema oso bat irauli zen gau hartan. Gaindi ezina zirudien korapilo bat askatzen hasi zen. Azken urteetan behin eta berriz errepikatzen genuena egia bihurtu zen gau hartan: gizarte zibilaren parte-hartzeak ekar lezake aldaketa, prozesuaren garapenaren bermatzailea izan daiteke.

- Armagabetzearen ondoren, zeintzuk dira zuen bide-orriko hurrengo pausoak?

Armagabetze egunean argi esan zen armagabetzea ez zela bakea eta horra iritsi arte lanean segitu behar zela. Bi engaiamendu azpimarratu ziren: batetik, preso eta iheslarien etxeratzea; eta bestetik, gatazkak sortutako sufrimendu eta biktima guzieren aitortza, eta hauen eskubideen errespeturako sortu beharreko mekanismoak eraikitzea. Armagabetzearen biharamunean Ipar Euskal Herrian begi bistan gelditu zen Frantses estatutik bake prozesuaren aldeko engaiamendu baten bila joan behar genuela eta engaiamendu hori presoan auzian pausoak ematea izan behar zuela. Honela, armagabetzearen biharamunean 'Orain presoak!' aldarrikapena jarri genuen mahai gainean. Sufrimendu eta biktimen aitortzarentzat, berriz, barne gogoeta bati lotu gara.

- Orain artean, bide-orrian ezarritako pausoak bete dira? Moldatu behar izan dituzue?

“Armagabetzea ez da bakea eta horra iritsi arte lanean segitu behar dugu”



“Hego eta Ipar Euskal Herriko errealitateak oso ezberdinak dira, kulturalki gatazkarekiko bizipenak ere ezberdinak direlako”

Lehenik eta behin frantses estatuaren jarreraren aldaketaren bila joateko apustua egin genuen. Horretarako, Euskal Herriko Herri Elkargoaren babes instituzionalarekin, 1.000 hautetsi baino gehiagoren babesarekin jo genuen Parisera, 11.000 pertsona bilduz. Tartean, gizarte zibilarekin, hautetsiekin eta Ipar Euskal Herriko lehendakariarekin Euskal Herriko (Ipar Euskal Herriko) delegazio bat eratu genuen eta Frantses justizia ministeritzarekin lan-esparru bat hedatu dugu. Lehen hurbilketak ematen hasi dira, baina gainerakoaren inguruan ez naiz zehaztasun gehiagotan sartuko, apirilaren 7an Baionako foroan esparru honen inguruko gogoetak partekatzea deliberatu duelako delegazioak.

- Zer espero dezakegu Espainiako gobernutik?

Hasteko, legearen baitan urratsak ematea eta, gero, konponbide ikuspegi batekin aritzea. Horretarako, Hego Euskal Herriari gehiengo politikoa eta sozialaren akordioa lortzea inoiz baino garrantzitsuagoa da eta honekin batera jendartea aktibatzea eta mobilizatzea.

- Eibarren izango zaitugu martitzenean, apirilaren 10ean. Zeri buruz jardungo duzu? Nolako hitzaldia izango da?

Haizea Ziluagarekin batera emango dut hitzaldia, eta elkarrizketan aipatutakoa sakontzeaz gain presoan etxeratzearen beharraz arituko gara.

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

IZADI

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Funeraria·Ehortzetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



Iñaki elortza
BOTIKARIA

Super-ulermena

Harrigarria da gizakiok nahi duguna entzuteko, ulertzeko eta interesatzen zaizkigun ondorioak ateratzeko dugun gaitasuna. Zergatik diodan hau? Hona hemen tesi hau azaltzen duen istorioa.

Orain dela pare bat aste gertatu zen pasadizoa. Lagun batekin nengoen taberna batean, biok sekulako **hanburgesarra** afaltzen, **kaña** izugarri handi horietakoa edaten genuen bitartean. Behin bapo-bapo jarri ginenean kafetxo bat eskatu genuen. Eta hemen iritsi zen gaueko momentua, nik ebakia, **sakarinarekin**, eskatu bainuen! Eta, nola ez, hor etorri zen eztabaida.

Lagunak: Sakarina hartzen duzu? Nire aita diabetikoa da, baina sakarina utzi du eta azukrera bueltatu da, lehen baino gutxiago botatzen du bai, baina **azukrea**. Sakarina hain kaltegarria dela entzuten da... minbizia eragin

dezakeela, patatin, patatan... Gainera bere burua zaintzea komeni zaio, bi pakete **Ducados** erretzen ditu egunero... Niri, beti bezala, lepoko zaina handitu egin zitzaidan eta nire erretorikarekin hasi nintzen. Hemen nire azalpen sutsuen nondik norakoa:

Nik: Zuk ikusten al dituzu albistegiak? eta ez zenuen orain dela urte eta piku entzun **OMS**-ek (OME euskaraz) haragi prozesatu eta gorriak, **hanburgesak** barne, minbizia eragin dezaketen sustantzien "1 taldean" sartu zituela? Talde honetan beste 117 sustantzian daude, **alkohola** eta **tabakoa** barne. Eta **sakarina ez** dago talde horretan! Gainera azukraren kontsumoa **ahalik eta gehien murriztea** ere gomendatzen du OMS-ek!

Bikaina nire lagunaren erantzuna: Gin Tonik bat erdibana?... kar kar kar!

Sexualitatea heldutasunean

Ariketa bat proposatuko dizut. Itxi begiak eta imagina itzazu eszena hauek:


1. Parke batean pasiatzen zabilta, banku batera hurbiltzen zara eta bertan bi pertsona pasio handiz elkar musukatzen ikusten dituzu...
2. Filma bat ikusten duzu eta sexu eszena bat dago protagonisten artean...
3. Hondartzako ertzean pasiatzen zoaz eta bi pertsona biluzik bainatzen daude, eta olatuekin jolasean...
4. Kanean eskutik helduta doan bikote batekin gurutzatzen zara...
5. Taberna bateko terrazan zaude, zure ondoan pertsona bat dago (emakumea edo gizona) eta oso erakargarria delako begira gelditzen zara, bere portaera sentsuala dela iruditzen zaizu...

Eta oran esaidazu, ze pertsona irudikatu duzu eszena bakoitzean? Sexua, adina, itxura fisikoa...? Gerta daiteke imaginatu dituzun pertsona horiek, printzipioz, heterosexuak izatea. Sozialki baldintzatuta gaude, eta edozein egoerari buruzko lehen irakurketak bat egiten du gehiengoaren tendentziarekin. Gure pentsamenduak, posibilitateak handitu eta dibertsitate sexuala eta aukera gehiago ikusi beharrean, txikitu egiten ditu.

Gainera, zer adin daukate zure pertsonaiek? Zure adinaren arabera, pertsona gutxi gorabehera gazteak imaginatu dituzu, nerabezartotik heldutasunera bitartean daudenak. Norbaitek pertsona nagusiak irudikatu ditu? 60 urte baino gehiagoko jendea, jubilauek, esate baterako. Agian, 4. egoeran... Eta besteetan?

Zoritxarrez, egoera erotikoa bakarrik pertsona gazteekin imajinatzeke programatuta gaude. Pertsona adindu edo zahar batek sexuarekin disfrutatzeke eskubiderik ez balu bezala. Afektu adie-

arantza alvarez
SEXOLOGOA



razpena onartu daiteke (4. egoera), baina erotismo adierazpena irudikatzea kostatu egiten zaigu.

Betiko gaztetasunaren gizarte honetan, pertsona nagusiek ezin dute desiatu, eta are gutxiago, ezin dira desiatuak izan. Zenbat adindu ikusi dituzue biluzik zineman? Izan ere, arraroa egiten zaizu nagusi bat horrela ikustea, ohitura falta dela eta. Batzuk uste dute nagusien gorputza zatarrak dela, bakarrik gazteen gorputzak direla ederrak. Gaztetasuna = edertasuna. Hondartza naturista batean 70 urtetik gorako pertsona biluzi batek atentzioa deitzen du... Harrigarria da betidanik nudismoa praktikatu duen pertsona batek, orain, bere adina dela eta, bere gorputza tapatu behar izatea, gure estetika kontzeptu limitatu eta krudela ez *iraintzeko*.

Sensualitatea edo erakargarria izateko aukera ere gaztetasunarekin lotuta joaten da. Kostatu egiten zaigu nagusi baten portearan erotismoa somatzea... sinpleki, bilatu ere ez dugu egiten.

Ez da berdin ikusten bi nerabek edo bi pertsona nagusik pasioa erakustea. Afektu adierazpenak badira, tira!... baina sexualak (musu apasionatu bat) intimitaterako utzi behar dira 50 urtetik gora edo. Eta ezta pentsatu ere 80 urterekin kalean musukatzea!... Eta zergatik ez? Diñot nik... Ez da ezer gertatzen 20 urteko bi gaztek elkar musukatzen badute, geltoki batean agurtzeko, baina *aitxita-amamek etxean egin dezatela*...

Desioak ez dauka adinik, plazerra edozein adinetan sentitzen da, edertasuna edade guztietan dago...

IKUSTEKO: "EN EL SÉPTIMO CIELO"

sex KONTUAK



25 urte eta gero, jubilatuek gogotsu helduko diote Nagusien Hamabostaldiari

Eguaztenean aurkeztu zuten Pertsona Nagusien XXV. Hamabostaldia udaletxean. Aurten 25 urte betetzen dira herriko jubilatuek urteroko hitzordua antolatzen hasi zirela eta, betiko martxan, oraingoan ere ekitaldiz betetako egitaraua prestatu dute Biztu elkarteak (Eibarko Jubilatu eta Pentsiodunen Koordinakundeak) eta Eibarko lau jubilatuek (Untzaga, Beheko Tokia, Ipurua eta Urki), Udalaren laguntzarekin. Apirilaren 4tik 20ra bitartean ia egunero izango da ekitaldiren bat, "jubilatuek urtean zehar egiten ditugun jardueren" adibide modura. Goiburuek ere gaurkotasan handiko gaiari egiten dio erreferentzia: "% 0'25arekin ere, zaharrok gogor".

Nagusien Hamabostaldiko inaugurazio ekitaldi ofiziala berez gaur izan arren, antolatu dituzten jardueren berri emateko aurkezpena eguaztenean egin zuten antolatzaileek. Idoya Sarasketa Gizartekintza zinegotziaren berbetan, "betiko moduan, Eibarko jubilatuek era guztietako jarduerak antolatu dituzte, egitarau bete-betea osatzeko. Egingo diren gauza guztien artean bereziki azpimarratu nahi nituzke sendagile bik emango dituzten hitzaldiak, biak ere oso interesgarriak izango direlako. Batetik Mendaroko Ospitalean Urologiako burua den Peio Arrosagarayk nagusien sexualitateari buruz jardungo du. Eta, horrez gain, orain Donostia Ospitalean egon arren luzaroan Mendaron jardun zuten Javier Ruiz neurologoak ere hitzaldia emango du".

Une honetan Biztu elkartearen presidente karguan dagoen Felix Elkorribek, bestalde, egitarauari errepasoa egin zion: "Ikusten duzuen moduan, denetarik daukagu: mahai-jokoak, hitzaldiak, txangoak... eta, jakina, astelehenero egiten duten moduan, Hamabostaldian ere pentsioen aldeko kontzentrazioekin jarraituko dugu, 12:00etan Untzagan". Bestalde, eguaztenean bertan zabaldu zuten erakusketaren



Eibarko lau jubilatuek eta Biztu antolatzen dute Hamabostaldia, Udalak lagunduta.

harira, honakoa azaldu zuten: "Jose Antonio Bonok Eibarko jendeari argazki mordoia egin zion orain dela urte batzuk eta orain, bera hil eta gero, familiak argazki horiei irteeraren bat eman nahi die. Horregatik, antolatu dugu erakusketak eta, norbaitek bere burua argazkiren batean aurkituz gero, argazkia oparituko zaio".

Aurkezpen ekitaldian Udalak jubilatuekin eta euren eskaerekin bat egiten duela esateko aprobeztatu zuten Sarasketak. Hain zuzen ere, Udal Bozeramaileen Batzordeak pentsioen etorkizuna bermatzeko premiari buruzko mozioa onartu berri du. Onartutako mozioa Irabazi-Ganemos Eibarko udal taldeak aurkeztutako mozioaren gainean adostu den testu alternatiboa da eta Eibarko PSE-EE, Eibarko EH-Bildu eta Eibarko EAJ-PNV udal taldeen aldeko botoekin eta Irabazi-Ganemos Eibar udal taldearen abstentzioarekin onartu da, "be-launaldien arteko elkartasun-berme eta bi-zi-baldintza duinak dituen gizarte baten zutoin izango den pentsioen sistema publikoaren defentsan". Estatuko Gobernuari eskatzen diotena 8 puntutan laburbildu dute eta, lehen puntuan honakoa eskatzen diote: "Pentsio sistema publiko nahikoa eta iraunkorra bermatu dezala, oinarrituko dena pentsio duin batzuetarako eskubidean, elkartasunaren eta gardentasunaren esparruan, finantzazio-iturri ziurrek eutsitakoa, modu horretan pentsio duinak bermatzeko".

Nagusien XXV. Hamabostaldia

Eguaztena 4.- Jose Antonio Bonoren omenezko argazki erakusketak zabaldu. Untzagako jubilatuek urtean.

Barixakua 6.- Hamabostaldiaren inaugurazio-ekitaldia. Joxe Agustin Arrieta, AGIJUPENS Gipuzkoako pentsiodun eta jubilatuen elkarteko presidentearen hitzaldia eta Untzagako abesbatzaren emanaldia.

Astelehena 9.- 12:00: Pentsiodun eta Jubilatuen kontzentrazioa, pentsio zuzenak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 10.- Oñati-Arantzazura txangoa.

Eguaztena 11.- 17:00: Parkinson-en nazioarteko eguna dela eta, atek zabaltzeko eguna Depalkel Debabarrena Parkinson Elkartearen (Ardantza, 1).

Barixakua 13.- 16:30: 'Pertsona Nagusien Sexualitatea' hitzaldia, Peio Arrosagaray, Mendaroko Ospitaleko Urologia Burua. Untzagako jubilatuek urtean.

Astelehena 16.- 12:00: Pentsiodun eta Jubilatuen kontzentrazioa, pentsio zuzenak eskatzeko. Untzagan. 18:30: "Prozesu kognitiboak" hitzaldia, Javier Ruiz neurologoaren eskutik. Beheko Tokia jubilatuen etxean.

Martitzena 17.- 12:00: Toka eta igel-toka finalak. 17:00: Tute, Mus eta Briska finalak. Ipuruako jubilatuek urtean.

Eguaztena 18.- 16:00: Txokolate-jana eta Kaleetan Kantuz abesbatzaren emanaldia. San Andres zaharren egoitzan.

Eguena 19.- Mugerzaren Oroimenezko Ibilaldia, Elgoibarrera.

Barixakua 20.- Hildakoen aldeko meza, Arrateko Santutegian. Bazkaria, Kantabria jatetxean. XXV. urtemuga dela eta, Biztuko zuzendaritzako kide ohiei omenaldia.

Sofia Machin (abeslaria)**“Modan dagoen abesti bat igotzen dugu astero Youtubera”**

Ahots ederra eta gozoa daukalako ezagutzen dugu Sofia Machin, 19 urteko abeslari eibartarra. Musika munduan hainbat gauza egin ditu, eta orain proiektu berri bati ekin dio Leioako Publizitate Fakultateko ikaskide batekin, Ander Lopezekin. Eta ez da erronka makala: astero abesti bat grabatzen eta igotzen ari dira Youtubera. Denbora gutxi daramate, baina izan duten harrerarekin gustora daude. Datorren astean, apirilaren 13an, El Corte Ingleseko kafetegian abestuko dute, 19:00etan.

- Astero Youtubera abesti bat igotzeko erronka jarri diozue zeuen buruari? Nola sortu zen ideia?

Fakultatean ezagutu gara. Aurten klase berean gaude, Publizitateko bigarren mailan. Ander ni baino lau urte zaharragoa da eta hainbat taldetan eta telebistako programetan ibili da. Biok batera nola moldatzen ginen probatu genuen, eta, ondo irteten zitzaigula ikusita, Youtuben gure kanala sortzea erabaki genuen. Youtuben ondo joateko eta jarraitzaileak izateko oso inportantea da konstanteak izatea, eta horregatik erabaki genuen egun bat jartzea, domeka, eta astero bideo bat igotzea. Horrez gain, elkarrekin kontzertu akustikoak egiteko asmoa daukagu. Datorren astean, esate baterako, El Corte Ingleseko kafetegian egongo gara, 19:00etan. Kontzertuetarako gure erreperitorioa daukagu, eta gero Youtubera igotzen ditugun abestiak

- Zelako abestiak dira Youtuberako aukeratzeko dituzuenak?

Youtubera igotzeko, une gorenean dauden abestiak aukeratzeko ditugu, horiek baitira azkenean jendeak ikusiko dituenak. Cover-ak edo bertsioak egiten ditugu. Dena dela, argi daukagu gustatzen ez bazaiugu ez dugula egingo, nahiz eta modan egon. Igo genuen lehen abestia, “Tu canción”, originalaren antzerakoa da, baina besteetan gehiago saiatu gara gure bertsio propioa sortzen, gure modura egiten.



- Zuen lanaren kalitatea ikusita, atzean lan handia dagoela ikusten da...

Lana eskatzen du. Aste honetan, adibidez, bi abesti grabatu ditugu eta badaukagu domeka honetan eta hurrengoan igotzeko. Abestiak aukeratu eta bakoitzak bere etxean prestatu ondoren, lehenengo Bilbon entsaiatu eta audioa grabatzen dugu, Anderrek bere etxean horretarako baliabide egokiak dituelako. Beste egun batean bera Eibarrera etortzen da eta bideoa grabatzen dugu nire kamara eta tripodearekin. Geuk egiten dugu dena. Gure nahia gauzak ondo egitea da, eta horretarako lan asko egin behar da.

- Nolako harrera izan duzue?

Harrera ona izan dugu. Leku askotako jendeak idatzi digu sare sozialen bitartez. Brisa Fenoy “Lo malo” abestiaren konpositoreak egin dugun bertsioa asko gustatu zaiola esan digu. Gure lana ezagutzera emateko modu ezinhobea da hau, eta aprobetxatu egin behar dugu. Harpidedunak apurka ugaritu eta bisita kopurua handitu nahi dugu, eta hortik abiatuta kontzertuak eman. Aurrera begira gure abestiak egitea gustatuko litzaiguke, baina oraingoz kantu ezagunen bertsioekin jarraituko dugu. Gure lana ikusi nahi duzuenok Youtuben “Sofia y Ander” bezala aurkituko gaituzte.



**KOLDO MITXELENA ZUMARAN
4. URTEMUGA (2014-04-01)**

*Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin geratzen da.*
ETXEKUAK

11 egun kamera aurrean euskeraz bizitzeko prest zaude?

Hala bada, zorioneko zara, Eibarren AKEBAI-k deituta, apirilaren 20an castinga egingo delako. Baina, zeren bila dabilta? 11 egunez kamera aurrean euskeraz bizitzeko prest dagoen norbait aurkitu nahi dute, "eibartarra eta saltseroa, kamera aurrean lotsatuko ez den aurpegi berri bat". Izan ere, azaroaren amaieran, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Eibarren ere Euskaraldiarekin egingo dugu, 11 egunez euskera hutsean bizitzeko

erronkari helduta. Baina gure herrian Euskaraldiari aurrea hartu nahi izan zaio, hain zuzen ere, casting bidez aukeratuko duten lagunak egingo duen lanarekin.

Aukeratzen duten lagun hori 11 egun euskera hutsean bizitzeko beharko ditu, bere esperientzia kamera aurrean erakutsita. Grabatutakoarekin webserie bat egiteko asmoa dagoela aurreratu dute. Castingean parte hartzera animatuz gero, apirilaren 20a baino lehen eman behar da izena,

Apirilaren 20a baino lehen eman behar da izena casting-erako.

bai.eus/casting/ helbidean sartu eta hor dagoen formulario-

ko datuak beteta. Animatu eta heldu erronkari!

Institutuko ikasleen arte-lanen erakusketa zabalduko dute apirilaren 13an Portalean

Datorren asteko barixakuan, apirilaren 13an, 19:00etan inauguratuko dute Portaleko erakusketa aretoan "Eibarko Ignazio Zuloagaren Egungo Islak" izeneko erakusketa. Urteroko martxan, Ignazio Zuloaga institutuko ikasleek egin-dako orotariko artelanek osatuko dute eta apirilaren 29ra arte izango da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Arduradunen berbetan, "udaberriak gu ere mugitzen gaitu, eta berak aginduta bezala ateratzen dira argitara ikasleek neguan gelan prestatutako lanak. Azken urteotan Portaleko erakusketa gela erabiltzen dugu horretarako eta aurtengo hau "Eibarko Ignazio Zuloagaren Egungo Islak" izenarekin egingo dugun azken erakusketa izango da. Beraz, eta 50. urteurrena betetzen dugula aitzakiaz hartuta, moduren batean esateko atzera begirako erakusketa egin nahi izan dute ikasleek, zaharrak berriekin uztartuz. Bide batez herritar guztiak erakusketara gerturatzea gonbidatu nahi ditugu, Artea den komunikazio asmo horretara gerturatuz gero, askotan harritu eta berritu egiten baikara".



Maite Agirregomezkorta Zubiaurre

II. URTEURRENA: 2016-IV-3

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte baizik.*



Elxeko Martinez Valero zelaian jokatu zuen Eibar KEk 2008/09 denboraldiko lehen partidua. Aurreko sasoiari Bigarren A mailan berriz bere tokiari eutsi eta gero, markagailuari hutsean eutsi zion talde armaginak 90 minututan zehar. 92.ean, ordea, Gaizka Tokerok Jose Maria Casesen pasea jaso eta garaipena eman zien gorri-urdinei. Garaipen honekin, Jaime Barriuso presidentea Kiroljokoa apustu-etxean egin zen lehen apustua irabazi zuen. Bere ibilbidea galtzen hasi zuen Kiroljokoak. Eibar KE Bigarren B mailara jaitsi zen denboraldi amaieran.



Jaime Barriusok egindako apustuak aro berria ireki zuen kirol apustuen munduan. Teknologia eta berrikuntzaren bidetik, bere egoitza Eibarren duen Grupo Kirolek (lehen Kiroljokoa izenarekin ezagutzen zena eta orain Kirolbet markarekin kirol ekitaldietan apustuak egiteko aukera ematen duena) beste ikuspegi berri bat zabaldu zuen ordura arte frontoietan, herri kirolean eta tabernetan egiten ziren apustuen inguruan.

Apustuak oso presente egon dira Euskal Herriaren historian eta hori aztertu du Jose Antonio Azpiatzuk argitaratu berri duen 'Juegos y apuestas en el Pais Vasco' liburuan. Gure herrialdean apustuek izan duten presentzia aztertu du historiariak. XVI. mendean idi-probetan eta boletan egindako apustuen dokumentuak

Irabaztea edo galtzea, jokoa baino gehiago

batu ditu, eta apustua euskal gizartearen oso errotuta dagoela erakutsi du hainbat adibiderek. Jarri dira traba eta mugak, baina apustuak ez dira eten, apustu-makina eta online egindako apustuera iritsi arte.

Euskal gizartearen ikurra da apustua, txikiteoa izan daitekeen moduan; eta, txiki-

teoa bezala, adituek diotenez, apustuak egitea edo jokoa egitea ez da kaltegarria berez, baina jardura hauek dituzten arriskuez ohartarazten dute.

Aro berriko apustuak

Berria da kirol apustuak makinatan eta interneten egiteko aukera, eta hauen ondorioz sortutako arazoek atentzioa deitzen dute gizartearen. Jose Antonio Gomez soziologoaren eta Jokoaren Urtekariaren zuzendari teknikoaren arabera, jokorekin arazoak dituztenen prebalentzia %0,3koa da, Espainiako biztanleria kontuan hartuta. Ana Estevez psikologia doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, ordea, ez da prebalentzia zenbaki bat ematen ausartzen, Diario Vascon eskaintako elkarrizketa batean azaldu duenez. Psikologoaren berbetan Gomezek emandako zifrak baino altuagoak jaso dituzte hainbat ikerketek, baina analisi sakonagoa egin beharra aldarrikatzen du.

Zenbakiak gora-behera, joko-adikzioaren prebalentzia 0 izatea da erakunde, aditu, ludopatiaren inguruan laguntzen dabilzan elkartearen eta apustu-etxeen helburua. Horrela aitortu digu Manu Egaña Grupo Kiro-



Grupo Kiroleko Pertsona eta Antolakuntzako zuzendaria da Manu Egaña.

leko Pertsona eta Antolakuntzako zuzendariak. *“Joko-adikzioaren prebalentziaren zifra baxua da tabakismoarekin edo, alkoholismoarekin konparatuta, eta gauzak bere neurrian hartu behar dira; baina landu egin behar da eta beti egongo gara arazo hori konpontzeko ekimenetan parte-hartzeko prest”.*

Grupo Kirolek joko arduratsuekin duen konpromezua azpimarratzen du Egañak. Joko Arduratsuen Batzordea dauka enpresak, eta hainbat protokolo zehaztu dituzte bertako langileen eta Kirolbeteko makinak euren establezimenduetan ditzuten ostalarien jarduna egokia dela ziurtatzeko. *“Tabernari batek nerabeak ikusten baditu makinaren inguruan, arazoari nola aurre egin laguntzen diogu horretarako zehaztuta daukagun protokoloa martxan jarritz”,* dio Egañak. *“Gu gara lehen interesatuak gure produktuek inpaktu minimoa izan ditzaten. Ez bakarrik perfil humanista batetik, baita enpresa ikuspegitik ere, pertsona kaltetuek euren inguruan sortzen duten ikuspuntua latza delako gure sektorearekiko”.*

Gazte eta nerabeengan fokua

Jokoarekin lotutako patologia duten pertsonak batzen dituzten hainbat elkarte daude Euskal Herrian. Oreretako Ekintza Dasalud, Hernaniko Jugadores Anonimos, Barakaldoko Ekintza Aluviz eta Gasteizeko Asajer dira zentro nagusiak, eta azken urteotan hainbat aldaketa nabari izan dituzte eurengana jotzen dutenen artean. Orain dela urte batzuk 40 eta 50 inguruko gizonezkoena zen zentro hauetara joaten ziren pertsonen profila, hamar urtetan zehar jokoarekin arazoak izaten zituztenak; baina orain gazteagoak izaten dira laguntza bila jotzen dutenak, pare bat urteko arazoarekin.

Kirol-apustuak egiteko modu berrieknerabeei eragiten die batipat, euren aisialdiaren zati bat bihurtu delako teknologia eta mekanismo berrien bitartez apustuak



Kirol apustu tradizionalen alternatibak eskaintzen dituzte teknologia berriek.

Kirol-apustuak egiteko modu berriekin nerabeengan jarri da fokoa, euren aisialdiaren parte bihurtu delako

egiteko ohitura. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Adikzioen VII. Planaren (2017-2021) arabera kezkatzekoa da online joko-apustuetaarako plataformen ugaritzea, gazte eta nerabeen artean batez ere. *“Online plataforma berriek mota guztietako jende-ari errazten diote jokoaren sarbidea, adingabeak barne, jokabide patologikoak sortzeko arriskua handituz”.*


Ana Estevez psikologoaren iritziz jokoak beti egon da hor, baina euskarri eta apustu-mota berriek erritmoa azeleratu dutela uste du. Nerabeen burmuina oraindik formatzen dagoela azpimarratzen du, eta jokoaren normalizazioaren zenbait alderdi sozialek nerabeak nahastu ditzakela dio, aisialdirako edo besteekin erlazionatzeko

erabiltzen dutelako jokoak. Hala ere, lasatasun mezua helarazten die gurasoei, arazo hau ez delako ezberdina nerabesarekin gertatu daitezkeen beste arazoekin alderatuz.

Gazteen aisialdiaren inguruko gogoeta egin beharra ikusten du Manu Egañak. Grupo Kiroleko Pertsona eta Antolakuntza zuzendariaren arabera ezinbestekoa da jokoaren inguruan dauden agente guztien arteko *“elkarlana eta koordinazioa”* joko-adikzioari aurre egiteko. *“Gu prest gaude bide horretan lan egiteko. Erakunde, unibertsitate, eta joko arduratsua eta ludopatia lantzen duten elkarteekin elkarlanean gabilta, baina denok bide beretik egin behar dugu aurrera”.* Bide horretan hasteko, gutxienez, kirol-apustuen jarduna guztiz erregulatuta dagoela azpimarratzen du Egañak. *“Gardena da eta Eusko Jaurlaritzak guztiz monitorizatzen du. Kirolbeten mugitzen den euro bakoitza erregistratuta geratzen da”.* Gazteei prebentzioa, informazioa eta alternatibak eskaintzea da orain kirol apustuen munduan dabilen eragileen erronka, asko dagoelako jokoan.



IGOR, zure joanera gugan utzi duen itzala izan dadila maite izan zaituztenen betiereko babes eta izara.



J.A. Mogel Ikastolako ikasle, guraso eta langileak



Gutxitan izango dugu goi mailako txirrindularitzaren tamaina hone-tako kontzentrazioz gure kalitatean. Bai profesionalen arloan, bai afizionatuetan asteburu honetako probarik garantzitsuenek gure herria hartuko dute. Euskal Herriko Itzuliaren 58. edizioaren bosgarren etapa Toribio Etxebarria kalean amaituko da gaur arratsaldean eta toki berean izango du helmuga Valenciaga Memorialaren 47. edizioak domeka eguerdian. Tartearen, nola ez, Itzuliaren azken etapa izango dugu bihar, Eibarren eguerdi aldean hasi eta arratsaldean Arrate gainean amaituko dena. Gozamen hutsa, beraz, gure artean ditugun txirrindularitza zale guztientzat.

Ale hau inprentara bidean, atzoko erlojuz kontrakoa zegoen jokatzeko, ordurako Itzuliak hiru etapa eginda zituenean. Lehen biak Julian Alaphilippe eta Primoz Roglic-en nagusitasuna erakutsi zuten eta Roglic ikusten zuten adituek erlojupekorako favorito. Alaphilippe irabazitako lehen eta bigarren etapei Jay McCarthyk eman zien jarraipena hirugarrenean esprintean nagusituta. Gauzak horrela, azken hiru etapei begira, Alaphilippe zegoen lider sailkapen orokorrean, Roglic eta Gorka Izagirreraren aurretik. Puntutako sailkapeneko buru ere




Hiru eguneko gurgil jaiaren aurrean

bada Quick Step-eko frantziarra, mendiko sailkapenaren jabe Thomas De Gendt da hirugarren etapako ihesaldiari esker, eta Enric Mas dugu gazte onena.

Bestalde, Belgikako Quick Step-eko sendagileen taldean dago Josetxo Ibaguren eibartarra eta hemendik dabil Itzuliarekin. Zarautzera bizitzera joan eta gero, gaur egun Mediterraneo kostaldean bizi da.

Greziako errefuxiatuei laguntzeko Zaporeak

Gaur Itzulia gurera heltzen dela aprobetxatuta, Zaporeak ekimenak ekitaldi berezia antolatu du Untzagan, 19:00etatik 21:00ak arte. Iazkoari jarraituta, oraingoan ere Grezian dauden errefuxiatu siriarren aldeko pintxo-potea egingo dute eta, horretarako, herriko ostalari eta kolektiboekin elkarlanean pintxoak prestatuko dituzte gero Zaporeak-eko txosnan saltzeko. Janariak ere jasoko dituzte, pixoihal, konpresa eta higienarako beste produktuekin batera; eta, horrez gain, hainbat kiroletako kamisetak zozketatuko dituzte. Mireia Alonsok eta Efrén Floresek dihardute koordinazio-lanetan.



Lasterketak herrian: asteburu bete-betea

ERDIGUNEA PEATONALIZATUTA gaur goizeko 09:00etatik etzi gaueko 22:00ak arte (T. Etxebarria ez da zabalduko ez gaur, ez bihar).

Euskal Herriko Itzulia

GAURKO ETAPA (Gasteiz-Eibar) **17:30ak** aldera amaituko da. Helmuga **T. Etxebarrian** izango da, Azitainetik sartuta.

BIHARKO ETAPA (Eibar-Arrate) **14:11n** irtengo da F. Calbeton kaletik eta, Karmen kaleraino itzulia eginda, Ermurantz abiatuko da. **16:30ak** aldera erdigunetik pasatuko da, Azitainetik sartu eta Ixuaraino jotzeko. **17:15ak** inguruan saihesbidetik pasatuko da, Azitainetik sartu eta Matsarian irtetzeko, hortik Usartzara igo eta handik **Arrateko** helmugaren bila, **17:30ak** aldera irteteko.

Valenciaga Memoriala

ETZIKO ETAPA (Eibar-Eibar) **09:00etan** irtengo da F. Calbeton kaletik eta Maltzagaruntz joko dute. **13:15ak** aldera dago aurreikusita lehenengoak iristea. Helmuga **T. Etxebarrian** izango da, Azitainetik sartuta.

Itzuliaren 5. etapa:

Gasteiz-Eibar


164,7 kilometrokoa izango da. Hiru mendate eta bi esprint ditu: lehen esprinta Bergaran (96 km), lehen mendatea Elosuan (2. mailakoa, 105 km), bigarren esprinta Loiolan (118 km), bigarren mendatea Endoian (2. mailakoa, 135 km) eta hirugarrena eta azkena Azurkin (1. mailakoa, 144 km).

Gaurko etapen Elosua pasatuta hasiko da gogortasuna, azken 60 kilometrotan kontzentratuta. Endoia eta Azurki bata bestearen segidan daude eta horrek gogorragoak bihurtzen ditu. Itzulian min handiena egin dezaketan eguna izan daiteke eta, adituek diotenez, baten bat ezustekoa ematen saiatu nahi baldin badu, hor izan dezake eguna.

Itzuliaren 6. etapa:

Eibar-Arrate

122,2 kilometrokoa izango da, laburra baina ezin ikusgarriagoa. Etapak zortzi mendate eta bi esprint ditu: Trabakua (3. mailakoa, 8 km), Gontzagarraigana (3. mailakoa, 18 km), Bizkaiko Begiratokia (3. mailakoa, 25 km), Muniketa (3. mailakoa, 39 km), Elgeta (2. mailakoa, 63 km), jarraian lehen esprinta Eibarren (83 km), Ixua (1. mailakoa, 89 km), bigarren esprinta Etxebarrian (98 km), Urkaregi (3. mailakoa, 104 km) eta Usartzara (1. mailakoa, 120 km). Etapa horretako mendateen kilometro kopurua eta portzentajeak honakoak dira: Trabakua, hiru %5era; Gontzagarraigana, hiru eta erdi %5,5era; Bizkaiko Begiratokia, bost %5era; Muniketa, lau %6,5era; Elgeta, lau



%7ra; Ixua, bost %9ra; Urkaregi, sei %4ra; eta Usartzara (moztena, baina gogorra), hiru %13ra.

Biharko etapen lider iristen denak bere burua defendatzeko eguna izango du, eta talde indartsua beharko du horretarako alboan. Gainera, Matsaria azken egunean egoteak gauzak aldatzen ditu eta interesgarriago bihurtzen; hori bai, liderari aurre egin nahi diotenek aurretik ere badute eraso non jo.

Valenciaga Memoriala:

Eibar-Eibar

167 kilometro eta erdi izango ditu Valenciagaren 47. edizioak. Espainiako Koparako laugarren proba puntuagarria da eta zazpi txirrindulariz osatutako 24 taldek hartuko dute parte domeka goizean, euretako 21 Espainiako Kopan lehiatzen dutenak eta beste hirurak antolatzaile taldeak gonbidatuta. Parte-hartzaileen artean bost dira euskaldunak, eta tartean izango da Eibar Energia Hiria ere. Koparako bederatzi probetatik, hiru Gipuzkoan jokatzen dira.

Edizio honek baditu berritasun bat baino gehiago, aurkezpen-ekitaldian azaldukoaren

arabera: *“Hemendik irtenda, kostaldetik egingo dituzte kilometro gehien, gero Zarautzetik Azpeitia eta Azkoitiara joateko, oraingoan ez direlako Itziar eta Debatik pasatuko. Elgeta gainetik ere Arrasatera joko dute eta ez Bizkaia aldera, aurreko edizioetan moduan. Aretio ez dute pasatuko, beraz. Eta helmuga Toribio Etxebarriara bueltatuko da”.*

laz txirrindularitza laga zuen Joaquim “Purito” Rodriguezek moztuko du irteera-zinta. Kataluniarak Valenciaga irabazi zuen 2000. urtean. Eta irteerako ekitaldia Jose Olaizola omentzeko ere aprobetxatuko dute. Beñat Urain txirrindulari-ohia izango da lasterketa-zuzendaria eta Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatzen duen Memoriala afizionatu mailako onenen egutegian jarraitzen du egoten: *“Afizionatueta-tik profesioletara jauzia egitea gero eta zailago dagoen arren, iazko 12 lehen sailkatuetatik zortzi dagoeneko profesiole-tan dihardute parte hartzen”.* Antonio Soto, Lizarbe taldekoa, da Espainiako Kopako gaur egungo liderra; eta Arozamena 23 urtetik azpikoan mai-



EIBARKO BIZIKLETA



TXIRRINDULARITZARAKO GUZTIA (salmenta eta konponketa)

ANDONI RETENAGA *zure konfidantzazko mekanikaria*
Karmen kalea, 4 andoni@ciclalia.es 943 530 212

BIZIKLETAK • ALDAGAILUAK • OSAGIAIK • ERROPA • OINETAKOAK

astelehenetik ostiralera: 10-13/17-20 zapatuetan: 10-13

Herriko pilotariek ezin izan zioten erramua eman burututako Udaberri Txapelketa bikainari



Azkargorta eta Astigarraga kadeteak irabazitako sariekin.

Azkargortak eta Astigarragak osatutako kadete mailako pilotariek amore eman behar izan zuten euren mailako binakako Udaberri Torneoa-ren finalean. Aurrez txapelketako partidu guztiak irabazi bazituzten ere, "finalean ez zuten euren egunik onena izan" eta Aretxabaletako bikotea baino gutxiago izan ziren, 22-8 emaitzarekin galtzeko. Klub Deportiboko ordezkariak, hala ere, ez dute lan makala egin, Gipuzkoako final batera iristea ez dagoelako edozeinen esku; badute, beraz, bidea egiten jarraitzeko ahalmena.

Emakumezkoen errugbi taldeak bigarren amaitu du

Denboraldi bikaina egin dute eibartarrek; hori baino gehiago ere bai, maila igotzekotan ere izan direlako. Aurreko asteburuan jokatu zuten partiduan sailkapeneko lehen postua zegoen jokoan eta, gutxigatik izan bazen ere, amore eman behar izan zuten Iruñean. La Unica-koek 12-10 irabazi zien



ten eibartarrei eta lehen postua berreskuratu zuten. Denboraldi honetan bertan, hasieran, alde handia zegoen bi taldeen artean, baina Eibarkoek egindako aurrerapausoa ikaragarria izan da. Zaletuek ere bikain erantzun zuten eta asko joan ziren partidua ikustera eta animatzera. Domekan eguerdiko 12:00etan euren historiako denboraldi onena agurtuko dute Unben Gazte-diren aurka. Ohorezko Bigarren Maila zain izango dute hurrengo denboraldian.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Betis - Eibar (bihar, 18:30)

2. B Maila

Barakaldo - Vitoria (etzi, 17:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Logroñes (etzi, 17:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Antiguoko - Eibar (etzi, 11:30)

FOBALL-ZALETUA

Bar Arkupe - Garajes Garcia (bihar, 09:00)

Bar Txoko - Ipur Sagardotegia (bihar, 09:00)

Azkena Adahi - Feredu Solut. (bihar, 10:30)

Sporting - Tankemans (bihar, 12:00)

Bar Areto - Reformas Hiru (etzi, 09:00)

Slow XOK - Durango (etzi, 10:30)

Alkideba - Esmorga (etzi, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Trapagaran (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Galdakao - Avia Eibar Eskub. (bihar, 20:00)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Urola Laztimendi (bihar, 16:30)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Euskal Liga

Avia Eibar - Escor Gaztedi (etzi, 12:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Claret Askartza B - Urbat (bihar, 11:30)

HIRU-TXIRLO

Gipuzkoako 49. txapelketa

Debako Lasturren (bihar, 17:00)

INFORMAZIO GEHIAGO WEB ORRIAN

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 14. etapa egingo dute apirilaren 14an

Gordexolatik Aretara joango den etapak 20 kilometro izango ditu guztira

Ondo asmatu zuten Klub Deportiboko mendi batzordekoek negu partean Bizkaiko Bira eteteen, eurak pentsatu bezala igo behar zituzten mendietan elurteak izan direlako. Behin udaberriari sartuta, azken txanpan sartu eta berrekingo diete Eibarren amaitzeko falta diren bost etapei. Hurrengo etapa, Biraren 14.ena, Gordexolatik irtengo da eta, 797 metroko Kamaraka mendia igo ondoren, Aretara jaitsiko da. Ibilbide osoa Ganekogorta mendi lerrotik zehar izango da eta, guztira, 1.500 metroko desnibela igozteko aukera eskainiko die. Irteera goizeko 07:00etan izango da, autobusen geltokian.

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzenetan eta eguenetan (19:30-20:30).

TABERNA ITXITA EGON ARREN, BULEGOAK ZABALIK EGONGO DIRA



Gordexolan amaitu zen aurreko etapari, Koltzako tontorrean.

Deporreko mendizaleak gustora ibili ziren Extremadura aldean

Martxoaren 29an abiatu ziren Klub Deportiboko 35 mendizale Jerteko herrira izen bereko haranean ostatu hartzeko asmatan, abiapuntu horretatik lau egunetan zeharkaldiak egiteko aprobetxatzeko. Hurrengo egunean Carlos V enperadorearen ibilbidea egin zuten: Tornavacas herritik irten ondoren, Behorren gaina hartu eta Jarandilla de la Vera-ra jaitsi ziren; beraz, Jerte haranetik Vera haranera igarobidea. *“Etapu luzea da, ia 28 kilometro markatzen baitzigu G.P.Sak”*. Zapatuan hirugarren haran batera jo zuten, bi bainuetxe lotzen zutela zelanbait: Baños eta Hervas, hain zuzen. Beraz, Baños de Montemayorretik ekinez, La Garganta herrira igo eta Hervas herrira jaitsi ziren. *“Hervas judu auzo politaren jabe da, herri txukun eta atsegina”*. Mendizaleek euren oinek hiru haran desberdin zapaldu zituzten horrela: mendebaldetik ekialdera, Ambroz, Jerte eta la Vera, mendien bidez historia eta gastronomia uztartuz.

Apirilaren 1ean, bestalde, mendi-egun handia ospatu zuten. Horretarako Avilako probintziara jo zuten, Central del Chorrora hurbildu eta, Bejarko mendilerroko garaienak diren Canchal de la Ceja (2.430 m.) eta Calvitero (2.390) gainditzeko asmoz. *“Kukua le-*



Mendizaleek elurra izan zuten lagun lau egunetan. **Periko Iriondo**

hen aldiz entzunez hasi genuen ibilaldia eta, mendi kanal batean sartuta, elur geruza geroz eta handiagoa zen. Gorago, El Trampaleko aintzira, lehen egunean Navakoan bezala, elur-izotzez estalia zegoen. Hamarretakoa egin eta, malda xut bihurtu ahala, elurra gogorragoa sentitu genuen, harik eta kranpoiak jantzi behar izan genituen arte”. La Ceja izan zen egun horretako lehen tontorra eta, ondoren, Calvitero igo zuten, gero jaitsiera bide beretik egiteko. Aberri Eguna ospatzeko era paregabea mendizale hauena!

Deltecoko duatloilarien taldea 7. sailkatu zen Durangon

Eibarko duatloilariak parte hartu zuten Durangoko XI. Duatloian zazpigarren postuan amaitu zuten taldekako sailkapenean. Pello Berrizbeitiak (1:07:42, 32. postuan), Pablo Zabalak (1:09:42, 45. postuan) eta Jon Illaramendik (1:10:38, 55. postuan) eman zioten denbora Eibarko taldeari. Aipatutako hiruarekin batera, beste hiru ordezkari izan zituen Deltecoko duatloia denboraldiko proba horretan: Roberto Gartzia (1:12:15, 69.ean), Hector Gisasola (1:21:45, 134.ean) eta Fidel Gonzalez (1:23:17, 138.ean). Emakumezkoetan Aitziber Urkiola izan zen eibartar bakarra eta Saltokiko ordezkariak laugarren amaitu zuen proba (1:14:04). Hilaren 15ean amaituko da duatloia denboraldia Erandiok jokatu den probarekin.

Asola Berriko Sergio Rodriguezek aldearekin ekingo dio bihar Lasturko tiraldiari

Asola Berrin izandako jardunaldian hiru izan zituen aurretik, baina hala ere lau txirloren aldearekin ekingo dio eibartarrak bihar Lasturreko bolatokian, 17:00etan hasita, jokatu den tiraldiari. Elgetako Oier Azumendi izan zen onena gure herriko bolatokian eta bera dugu orain bigarren sailkapen orokorrean, Sergioren-gandik lau txirlora. Eta Asola Berriko bigarrena, San Migueleko Unai Loiola, bost txirlora dugu hirugarren postuan.

Izeta Arrateko jokalaria-ohia hil da

Txomin Izeta 1973-74 denboraldian eskubaloiko Ohorezko Mailara igo zuen J.D. Arrateren kapitaina atzo hil zen Donostian, 67 urterekin. J.D. Arrateren sasoi onenetako urteak bizi izan zituen, beste eibartar askorekin batera Untzagan jokatzeko hasi eta goi mailara igo zen talde hartako jokalaria moduan.



Emakume Master Cup-eko finalek historiko bihurtu zuten Astelena frontoiko domeka eguerdia

Harmailak pilotazalez lepo eta giro itzalarekin amaitu zen Emakume Master Cup-eko bigarren edizioa eta, jaialdia telebistaz eskaini bazuten ere, Astelena frontoira sartu ezinik geratu zen jendea, azken aldian Katedralean ikusi gabeko irudia eskainiz. Torneoari dagokionez, 1. Mailako finalak ez zuen kolore askorik izan, eta txapela buruan zutela kantxaratu zirenak txapelarekin bueltatu ziren aldageletara. Hau da, Olatz Arrizabalaga eta Leire Etxaniz bizkaitarrak nagusitu zi-

ren berriro ere, orainoan 22-7 irabazita Patri Espinar eta Eneritz Arrietari. Askoz lehiakorragoa izan zen promozio mailako finala eta hor Ainhoa Urien eta Amaia Vicario Oihana Orbegozo eta Alaitz Badioa baino zertxobait hobeak izan ziren (22-20). Bikain amaitu zen, beraz, ehun pilotaritik gora hartu dituen Laboral Kutxa Emakume Master Cup torneo, aurrez Gasteizen, Larrabetzun, Markinan, Zamudion eta Oñatin izandako betekadei Astelena gaituz.



UXUE IGARZA: "Urtauen bidian, udaberrixaren zain".

Ainhoa Carmonak liburua argitaratu zuenean bazekien elkarrizketen txanda ailegatuko zela eta horrelakoetan urduri jartzen dela aitortu digu, baina bere liburuan murgiltzen garenean etengabe irteten dira berbak bere ahotik. Arimaren barrenera egin du bidaia 'Polen del alma' liburuan azaldutako ipuinak osatzeko, eta oso pozik geratu da. Gustora. Gainera, harrera ezin hobea izan du irakurleen artean. Horrela jarraituz gero, ohitu dadila elkarrizketak ematera. Eguenean, apirilaren 12an, liburua aurkeztuko du 19:30ean Portalean.



“Sentimenduak daude liburuaren oinarrian”

- *'Polen del alma' da liburuaren izenburua eta udaberriaren hasierarekin argitaratu da. Kasualitatea da ala badu zerikusirik?*

Pentsatu gabe izan da.

- *Orduan, nondik dator izenburua?*

Sentimenduak daude liburuaren oinarrian eta, tximeletek polenarekin egiten duten moduan, liburuko ipuin bakoitzean sentimenduak utzi ditut. Gaur egungo gizartearen egoerak sortzen dituen sentimenduak azaldu ditut. Gero, egoera horiei buelta ematen saiatu naiz eta gainditze istorioak kontatu ditut.

- *Non aurkitu duzu inspirazioa?*

Istorio batzuk ametsetatik abiatu dira. Amestu dudak zerbait hartu eta tira egin dut imajinazioaren laguntzarekin istorioak sortzeko. Bestetik, Pagatxak antolatutako sormenezko idazkera tailerretan parte hartu dut eta objektu batetik abiatuta istorioak idazteko ariketak egin ditugu. Orduan, tailer horietan idatzitakoak ere sartu ditut liburuan. Gero, jendeak kontatutako zerbait hartu eta ipuinak asmatu ditut. Ba-

tzuetan hasieratik dakit zer kontatuko dudana, baina beste batzuetan idazten dudana bitartean etortzen zaizkit ideiak eta harrituta geratzen naiz idatzitakoak hartzen duen itxurarekin.

- *Nolako gauzak kontatzen dituzu?*

Esan bezala, sentimenduak daude liburuaren oinarrian, baina egoera latzak ere kontatu ditut. Helduentzako ipuinak dira. Alkoholismoa eta genero indarkeriaren inguruan idatzi dut, besteak beste, baina beti buelta bat emanez, esperantzazko mezuarekin. Jendeak dio imajinazio handia daukadala, baina ez dut uste. Berez irreten zait gauza horiek idaztea.

- *Zenbat ipuinek osatzen dute liburuak?*

Hogeita bederatzi ipuin dira eta ez dute bata bestearekin zerikusirik. Ipuin bi euskaraz idatzi ditut eta besteak gazteleraz daude.

- *Nola hartu zenuen liburuak idazteko erabakia?*

Beti gustatu zait irakurtzea eta idaztea, baina idatzi gabe egon nintzen denbora askoan. Orain dela pare bat urte Pagatxako

idazkera tailerlean hasi nintzen eta lehendik idatzita nituen idatziak erakutsi nituen. Klasekoei nire idatziak gustatu zitzairen, baina ez nuen hainbestearainokoa zenik pentsatzen. Tailerreko koordinatzaileak liburuak argitaratzeko animatu ninduen. Durangoko Azokan amak liburu bat erosi zuen eta nire liburuak argialetxe horrekin kaleratzeko proposa zela ikusi nuen. Argialetxera jo nuen, nire testuak bidali nizkien, gustatu zitzaizkien eta hemen daukagu liburuak!

- *Nolako lana izan da liburuak editatzea?*

Berria eta estresagarria, baina oso polita. Argialetxearekin oso gustora eta babestuta sentitu naiz.

- *Eguenean liburuak aurkeztuko duzu Portalean. Nolako ekitaldia izango da?*

Zehaztu egin behar dut oraindik. Jendeak kalean gelditu nau liburuaren inguruan berba egiteko eta euren ametsa liburu bat idaztea dela esateko. “Ba zeren zain zaudete?”, esaten dut. Baliteke zentzu horretan zerbait irakurtzea aurkezpenean.

RAFAEL TREVIÑO IBARZABAL

(I. Urteurrena: 2017-IV-7)

URTEBETE PASA DA GURE ONDOTIK ALDENDU
ZINELA, BAINA GERTU SENTITZEN ZAITUGU.

Maite zaitugu
ETXEKOEK





MARKOS GIMENO (palindromista)

- CPI – Nazioarteko Klub Palindromistaren topaketa jasoko du bihar Eibarrek. Zer aurkituko dugu bertan?

Palindromoak gustatzen zaizkigun edo egiten ditugun mundu osoko kideek osatzen dugu CPI – Nazioarteko Klub Palindromista. Bartzelonan sortu zen orain dela hogeita bost urte eta kide gehienak Espainiakoak dira, Kataluniakoak batez ere. Topaketa bat egiten dugu urtero, eta kideen palindromoak batu eta fanzine bat osatzen dugu baita ere. Topaketak Katalunia inguruan egiten dira normalean, baina kasu honetan Eibarren antolatzea proposatu didate. Orain dela zazpi urte Ermuan egin genuen eta berriaz animatu naiz.

- Palindromoei buruzko hitzaldia eta errezitala eskainiko duzue topaketan. Nolako izango da errezitala?

Klubeko kideak batzeko balio du topaketak, baina ekitaldi publikoa egin nahi izan dugu. Eguerdian errezitala eskaini-

“Euskarazko palindromoak egitea ezinezkoa zela pentsatzen nuen”

“Nik erara neraman amaren aranekin”. Hau da, ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerredera berdin irakurtzen diren esaldiak. Markos Gimeno urteak daramatza palindromoak osatzen eta, orain, CPI-Nazioarteko Klub Palindromistaren topaketa antolatu du Eibarren. Ekitaldia bihar 12:00etan hasiko da Portaleako areto nagusian eta hitzaldiaz gain ikuskizuna eskainiko dute palindromistek. Ondo pasatzeko aukera hasieratik amaieraraino, eta alderantziz.

ko dugu eta hamar palindromista bilduko gara, bakoitzak bere palindromoak irakurtzeko. Gero aurkezpen bat egingo da eta Raul Ortizek bost minutuko go-goeta bat egingo du palindromoen inguruan. Ondoren bazkaltzera joango gara eta domekan turismo pixka bat egiteko aprobetxatuko dugu.

- Nongo jendea etorriko da topaketara?

Kataluniatik etorriko dira gehienak, baina Alemaniatik ere etorriko da emakume bat. Txiletarra da bera, baina han bizi da.

- Nolako mugimendua dago palindromoen inguruan Euskal Herrian?

Ez nuke esango mugimendua berba egokiena denik (barreak). Euskal Herriko hiru bazkide gaude klubean eta gero badago beste pertsona bat palindromoekin ibiltzen dena baita ere, baina gehiago ez. Bakoitzak bere aldetik egiten ditu palindromoak. Nik, adibidez, zerojasoa.com blogean jasotzen ditut nire palindromo-

ak. Palindromista bakoitza bere bidetik hasten da palindromoetan. Batzuk literatura aldetik datoz eta beste batzuk matematikatik.

- Nola sartu zinen palindromoen munduan?

Liburu baten aurkezpen baten inguruan zerbait entzun nuen irratian 1999. urtearen inguruan eta interesa piztu zitzaidan. Orduan hasi nintzen palindromoak sortzen, batez ere euskaraz. Ez nituen euskarazko palindromoak ezagutzen, beraz, ezinezkoa zela pentsatu nuen. Euskarazkoak sortzen saiatu nintzen eta topatu nituen. Bide bat aurkitu nuen hor eta urteekin bloga sortu nuen. Palindromoak plazaratzeko ariketen formula aurkitu nuen eta hor nabil gaur arte.

- Euskarazko palindromoak egiten jarraitzen duzu?

Astelehenero palindromoen ariketak jartzen ditut blogean eta euskaraz egindakoak izaten dira.


Apirilerako argazki erakusketak tabernetan

Apirilean hiru erakusketa ikusteko aukera izango da beste horrenbeste tabernetan Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik. Apirilaren 30era arte hiru argazkilarari hauen lanak izango dira ikusgai: Portalea jatetxean Jaione Garcian argazki erakusketa dago ikusgai; Ambigú tabernan, berriz, Isabel Casellasena; eta Depor tabernan, Gracia de la Hoz argazkilaria.



Domekara arte ikus daitezke Eguen Zuri argazki lehiaketako lanak Topalekuan

Aste Santu aurretik, martxoaren 23an banatu zituzten Arrate Kultur Elkartek antolatutako XXI. Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak: aurreten, lehen saria Fernando Retolazak jaso du, “Ezkonberriak” izenburuko argazkiarekin. Bigarren saria Jose Luis Irigoienek eraman du eta hirugarrena, berriz, iazko edizioan irabazlea izan zen Bakarne Elejalderentzat izan da. Lan irabazleak eta lehiaketara aurkeztutako beste batzuk domekara arte ikusteko aukera izango da, Topalekuan dagoen erakusketan.



Koldo Zuazok Sarako hizkerari buruzko liburua plazaratu du

EHUko Eibarko irakaslearen "Sarako euskara" liburua izan zen astelehenean egin zen Sarako Idazleen 35. Biltzarraren protagonistetako bat. Horrez gain, hizkuntzalari eibarrak Herriko Saria ere jaso zuen, Battitta Laborde alkateak emana. Sarako hizkeraren ezaugarriak eskaintzen ditu Zuazok liburuan, 2013tik iaz arte bertan jasoak, eta bi zati nagusi ditu: gramatika eta hiztegia, 4.236 sarrerekin eta 389 azpisarrerekin.



Gaur zabalduko dute Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa Portalean

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko dute Portalean Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa. Urteroko martxan, talde erakusketa izango da eta elkarteko hainbat bazkidek, 50 inguruk hartuko dute parte, euren artelanekin. Normalean margolanak nagusi izan arren, beste arte disziplina batzuetako lanak ere erakutsiko dituzte: egurra, marrazkia, eskultura, zeramika, grabatua, argazkilaritza... Apirilaren 29ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Pagatxaren zine-foruma

Emakumeen Historia zikloaren barruan, datorren asteko barixakuan zine-forum saioa egingo da Portalean, 19:00etan, Pagatxa emakume elkartearen eskutik. "Mi vida a los sesenta" (Sigrid Hoerner) filmaren inguruko saioa izango da eta nahi duenak izango du parte hartzeko aukera, sarrera librea izango da-eta.



"Carmen" operaren proiektzioa

Apirilaren 14an herritik kanpora joan barik operaz gozatzeko aukera izango dute genero horretako zaleek, Coliseo antzokian, 19:00etan "Carmen" opera ezagunaren proiektzioa eskainiko dute-eta. Sarrerak 9 euro balio du (6'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

"Isaskara" musikalerako txartelak



Mogel Isasiko ikasleek apirilaren 20an aurkeztuko duten "Isaskara" muskala ikustera joateko sarreraren aurrealmentak zabalik jarraitzen du, interneten (Kutxabank zerbitzuaren bitartez) zein Coliseo antzokiko leihatilan (8 euro, 6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Opus Cuatro taldearen emanaldia

Eguaztenean, 20:30ean "Opus Cuatro" taldearen kontzertua hartuko du Coliseoak. Argentinan ibilbide luzea daukan ahots-taldeak Eibarko saioan tangoak, hamaméak, valsak, sirillak, boleroak, milongak, joropoak eta chacararak eskainiko dituzte. Voces y Cuerdas taldeak ere hartuko du parte kontzertuan. Sarrerak 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Zure irribarrea ez dugu inoiz ahaztuko

IGOR ATXA MANTECÓN
2018-03-28

Zure betiko lagunaren partez





MAIREN ILLARRAMENDI

Postureoa

"Posturea para que el mundo lo vea"... dio abesti ezagun baten izenburuak. Eta horixe da kontua gaur egun, ahalik eta jende gehienak ikustea zein "zoriontsuak" garen, gauden lekuan gaudela. Ikustea zelako janari goxoa irentsiko dugun modako jatetxean; ikustea zein lagun eta familia onak ditugun; ikustea zein arratsalde zoragarria pasa dugun dendaz denda dirua xahutzen; ikustea zein kontzertu zoragarritan egon garen; ikustea gure oporrak zein paradisiakoak diren... Eta, horrekin batera, jendeak *atsegin dut* botoiari sakatzea, zenbat eta gehiagotan hobe, harro-harro senti gaitezen garenarekin, daukagunarekin, egiten dugunarekin, hitz batean, geure buruarekin. Teknologia erraz jartzen digu ikusarazi nahi duguna bistartzeko aukera: klik bakar bat eginez zoriontasunaren paradisuan kokatzen gaitu, zoritxarrik ez duen erakuslehoian. Arazoa zera da, oraindik ez dela iritsi erakutsi nahi dugun hori egia bihurtzen duen tramankulurik; izan ere, ez didazue ukatuko nahi baino gehiagotan guk erakutsitako argazkietako jatekoa irentsiezina izaten dela, lagunekin haserrealdiak izaten ditugula, erosketa-egunak gogaikarriak izan daitezkeela, kontzertua hutsaren hurrengoan izan daitekeela, eguraldiak oporrik zoragarrienak zapuztu ditzakeela... ezta? Denok dakigu zein erreallitate ezkututzen den igotzen dugun argazki bakoitzaren edo idazten dugun hitz bakoitzaren atzean. Baina... besteak konturatzen ez diren bitartean, guk plantak eta itxurak egiten jarraituko dugu, eta ondo etorriko zaigu "e-berba" lehiaketako hitz irabazlea gure egunerokoan dugun postureoa izendatzeko: *plantiatura*.



Solasaldia eta bertso-afari feminista antolatu dituzte datorren barixakurako

Apirilaren 13an, 18:30ean, "Feminismoa eta euskara" izenburuko solasaldia egingo da udaletxeko patioan, Idurre Eskisabel eta Lorea Agirrerekin, Hamaika Berbaldi egitasmoaren baitan. Ondoren, poteo girotua antolatu dute eta, eguna biribiltzeko, 21:00etan bertso-afari feminista hasiko da Kultu tabernan, Mairen Lujanbio, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin. Gai-jartzailea Desirée Magro izango da. Afarirako txartelak Kultu tabernan ipini dituzte salgai (20 eurotan soldataduentzat eta 15 eurotan soldata gabekoentzat). Solasaldia zein afaria Arrate Kultur Elkarteak, Nalua Eibarko talde feministak, Eibarren AKEBAIk eta Hankamotxak bertso eskolak elkarlanean antolatu dituzte.

Zanguango Teatrok "Esto no me lo esperaba" aurkeztuko du Coliseoan hilaren 13an

Datorren asteko barixakuan, 20:30ean "Esto no me lo esperaba" antzezlanaren taularatuko du Zanguango konpainiak Coliseo antzokian (8 euro, 6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Miguel Muñoz Montorok zuzentzen duen lanean Txubio Fdez. De Jauregui, Miguel Garces, Begoña Kregoa eta Helena Golab antzezleek hartzen dute parte. Kontatzen duten istorioan, lau figurante Emiliano Zapataren bizitza kontatzen duen ikuskizun handi baten bira jarraitzen ausartzen dira, produktoreek eta protagonistek bazter batera utzi ondoren. Ezinak estutasun komiko baterantz eramango ditu eta behin eta berriz egingo dute estropezu zutik jarri nahi duten fikzioarekin.



Katixa Agirrerekin Harixa Emoten

Astelehenean izango da Idazlearekin Harixa Emoten, euskarazko irakurketa klubaren hurrengo saioa, 19:00etan Portalean (Kulturako 3. batzartokian). Oraingo honetan Katixa Agirreren "Atertu arte itxaron" liburua aztertuko dute. Idazlearen lehen eleberria "Road Movie" antzeko bat da, Euskal Herrian barrena, eta argi erakusten du hari mataza desberdinak josteko egileak duen trebe-



zia: 1976ko martxoko Gasteizko borroka batean, Benjamin Britten konpositore ingelesa beste batean... Antxon Narbalezak gidatuko du saioa eta idazlea bertan egongo da, irakurleen galderei erantzuteko prest. Sarrera librea izango da.



Erreka Kaleko Jaiak ELORRION


Atzo hasi ziren Elorrioko Erreka Kaleko Jaiak, eta antolatuta duten egitarauak asteburu osoa beteko du: gaur 19:30etik aurrera Sakatu Punk elektrotxaranga girotuko ditu kaleak eta gauean, 23:00etan, Anita Parker zuzenean entzuteko aukera izango da Ateneon. Bihar 17:00etan pilota partidak hasiko dira plazako frontoian eta, ondoren, Luhartz taldeak emanaldia eskainiko du plazan, 23:00ak arte; ordu horretan hasiko dira kontzertuak gaztetxean, Enders, Storm eta Jokin Alonso DJ-arekin. Eta domekan, 10:00etatik 15:00etara 3R Azoka ipiniko dute eta 12:00etatik aurrera Txapito Guzman txarangak girotuko du.



80/90 hamarkadetara buelta ERMUAN

Ermuko Gaztela Leon Kultur Zentroak 80/90 hamarkaden inguruko jaiak antolatuta du biharko. Ekimena Orbe Kardinala plazan burutuko da. Programazioa 17:00etan hasiko da, Antxitxiketan aisialdi taldearen eskutik egingo diren haurrentzako jolasekin. Bien bitartean, 18:00etatik aurrera zumba erakustaldia egingo dute eta, jarraian, barrenatzaileek burdinezko barrekin harriak nola zulatzen dituzten erakutsiko dute. Gauean, 22:00etan, DJ Tenor musikariaren emanaldiak agurtuko du programa. Koko-jantzi lehiaketa ere egingo da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Maria Blanco Sanchez. 89 urte. 2018-III-21.
- Beatriz Zabala Garitaonandia. 72 urte. 2018-III-26.
- Igor Atxa Mantecon. 40 urte. 2018-III-28.
- Avelina Miguel Martin. 87 urte. 2018-III-29.
- M^a Angeles Santos Taborja. 90 urte. 2018-III-29.
- Jaime Garate Larrañaga. 63 urte. 2018-III-31.
- Jacoba Garrido Rios. 89 urte. 2018-III-31.
- Maria Elgezua Loiola. 87 urte. 2018-IV-1.
- Txomin Izeta Berastegi. 67 urte. 2018-IV-4.

jaiotakoak

- Jesiah Esperanza Rosendo Ruiz. 2018-III-15.
- Naim Benslaiman Benslaiman. 2018-III-16.
- Martin Hidalgo Suarez. 2018-III-19.
- Mohamad Hafdala Dah. 2018-III-19.
- Sami Akila. 2018-III-21.
- Eydan Gonzalez Peña. 2018-III-22.
- Aroa Etxebarria Fernandez. 2018-III-22.
- Janik Gonzalez Retana. 2018-III-22.
- Jaden Jose Perez Veras. 2018-III-26.
- Mark Larreategi Catalan. 2018-III-26.
- Mateo Paradela Lopes. 2018-III-31.
- Jon Agirregomezkorta Izarra. 2018-III-31.

farmaziak

- Barixakua 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 7
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Domeka 8
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Astelehena 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguaztena 11
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Eguena 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

4	9	7	5	6	8	1	2	3
2	6	5	3	4	1	7	8	9
1	8	3	2	9	7	4	5	6
6	3	1	9	5	2	8	7	4
7	2	4	1	8	6	3	9	5
9	5	8	7	3	4	6	1	2
5	7	2	4	1	3	9	6	8
3	1	6	8	2	9	5	4	7
8	4	9	6	7	5	2	3	1

2	9	4		7				
		8	4					
7	3		9	1				
8					1	5		
	4		2		7		1	
		7	3					2
				3	9		4	8
				6	1			
			2		3	5	6	

telefono

jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udalzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	902 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

Barixakua 6

TXIRRINDULARITZA

17:30. Itzuliaren Gasteiz-Eibar 5. etaparen amaiera. T. Etxebarrian.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

PINTXO-POTEA

19:00/21:00. Zaporeak-en pintxo-potea, errefuxiatuei laguntzeko. Untzagan.

Zapatua 7

GURE ESKU DAGO

10:00/15:00. Mahaia eta ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Untzagan.

TOPAKETA

12:00. Palindromisten topaketa. Ekitaldi irekia. Antolatzailea: CPI Club Palindromista Internacional. Portalean.

TXIRRINDULARITZA

14:11. Itzuliaren Eibar-Arrate 6. etaparen hasiera. Calbeton kaletik.

16:30. Azitainetik sartuta, Ixuaraino.

17:30. Etaparen amaiera. Arraten.

ESKULANAK

17:30. Umeendako. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

Domeka 8

TXIRRINDULARITZA

09:00. Valenciaga Oroitzarrearen irteera, Calbeton kaletik.

13:15. Lasterketaren amaiera. T. Etxebarrian.

KALEJIRA

11:00. Usartza txistulari taldearen kalejira.



Zaporeak-ekoak 16:00etatik izango dira Untzagan, kamisetak saltzen. Gero, trikitilariak izango dira 18:45etik aurrera. Zozketa 21:00etan izango da.

Astelehena 9

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

12:00. Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. Untzagan.

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa: goroldioa, bulneraria eta konsuelda. Portalean.

Martitzena 10

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

09:00. Oñati-Arantzazura txangoa.

IKASTEN

10:00. "Emozioen eragina minbizian" hitzaldia, Juan Sanchez Vallejo sendagile eta psikiatraren eskutik. Armeria Eskolan.

HAZILAN

12:00. Hazilan programari buruzko saio informatiboa. Debegesan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HITZALDIA

19:00. Anaiz Funosas (Bake Bidea-ko presidentea): "Bake Artisauen esperientzia Iparraldean". Haizea Ziluaga (Ibon Muñoaren abokatua): "Ibon Muñoa eta euskal presoaren egoera". Eibarko Sarek antolatuta. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Euskarazko irakurketa klubaren saioa, Katixa Agirreren "Atertu arte itxaron" liburua inguruan. Portalean (Kulturako 3. batzartokian).

Eguaztena 11

ATE IREKIAK

17:00. Parkinsonaren Nazioarteko Eguna dela-eta, ate irekiak Deparkel elkartearen lokalean (Ardantza, 1).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

KONTZERTUA

20:30. Opus Cuatro. 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Eguena 12

IKASTEN

10:00. "Bihotz-biriketako suspertzea - Nola erabili desfibriladorea" hitzaldia, Txema Unanueren eskutik. Armeria Eskolan.

JARDUNALDIA

12:00. Lanbide Heziketa Dualaren eskaintza ezagutzera emateko jardunaldia. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

18:00. "O'Donell kaleko bonba: lehertu zen ala ez?", Federico Rodriguez Cabezón ingeniari bilbotarraren eskutik. Udal Artxiboan.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

LIBURU AURKEZPENEA

19:30. "Polen del alma", Ainhoa Carmona Lópezena. Portalean.

Erakusketak

Apirilaren 8ra arte:

— EGUEN ZURI LEHIAKETAKO ARGAZKIAK (Topaleku)

Apirilaren 20ra arte:

— J.A. BONOREN OMENEZKO ARGAZKIAK (Untzagako jubilatuz etxea)

Apirilaren 29ra arte:

— EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN LANAK (Portalea)

Apirilaren 30era arte:

— ISABEL CASELLASEN ARGAZKIAK (El Ambigú)

— JAIONE GARCAREN ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)

— GRACIA DE LA HOZEN ARGAZKIAK (Depor taberna)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MARKEL!, hillaren 9xan 10 urte egingo dozuz-eta! Ondo pasa. Besarkada eta patxo potoluak famelixaren partez!



Zorionak, JULEN!!!, domekan 4 urte egingo dozuz-eta! Patxo haundi bat etxekuen eta, bereziki, Unairen partez.



Gure lehengusu UNAXek 3 urte bete ditte. Zorionak, mutil haundi, txapeldun! Musu erraldoia Markel eta Beñatzen partez.



Zorionak, JULEN, zure lehelengoko urtebetetzian! Patxo mordua famelixa guztiaren eta, batez be, Haizearen partez.



Zorionak, JONE!, martxuaren 28xan 5 urte egin zenduaz-eta. Asko maitte zaittugu, polittori! Famelixaren partez.




Zorionak, AMAMA SOLE!!!, atzo 96 urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Onena zara!!!



Zorionak, XUHARE!, atzo 2 urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AROA, gure etxeko bihurrixenak haraifegun 5 urte bete zittuan-eta. Musu pillua guztion partez.



Zorionak, HELENE, martitzenian 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo haunid bat famelixaren eta, batez be, Nahiaren partez.



Zorionak, IRAIA, gaur 7 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Gaur 8 urte, txapeldun! Zorionak, JON, eta besarkada haundi bat etxekuen partez.



Ongietorri, DANEL (martxuaren 30etik gure artian), eta musu haundi bana amatxo Enara, aitaxo Gaizka eta NAIARI.



Zorionak, IGOR, famelixa guztiaren parte!! Patxo haundi bat!!

Zorionak gure 2 PIRATAXUeri, eta jarraitu bazterrak konkistatzen.



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
7an: 19:45, 22:30
8an: 20:00
9an: 20:30

"The Party"
Zuzendaria: Sally Potter



(2 ARETOAN)
7an: 17:00, 19:45, 22:30
8an: 17:00, 20:00
9an: 20:30

"Tomb Raider"
Zuzendaria: Roar Uthaug



(ANTZOKIAN)
7an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
8an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00
9an: 20:30

"Pacific Rim. Insurrección"
Zuzendaria: Stephen DeKnight



(ANTZOKIAN)
7an: 17:00^(GAZTELERAZ)
8an: 17:00

"Peter Rabbit"
Zuzendaria: Will Gluck



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Santo Domingo erdialdean. Bista onak. Kopontzeko. Tel. 699-960037.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 671-972733.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokatzen dut Untzaga inguruan. Tel. 652-775746.
- Lokala alokatzen da Eibarko erdigunean. 100 m². Akademia edo kontsultarako egokia. Tel. 606-065518.
- Lokala alokagai Amañan, T. Anitua 10ean. Gazteentzako aproposa. Tel. 696-996175.
- 33 m²ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 290 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-067042.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 600-099460.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-644435.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-576611.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo asteburuetan. Esperientzia. Tel. 631-406177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-914989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta baserrian jarduteko. Tel. 688-735551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da gauze edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-301325.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-827097.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-235118.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-482526.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-103913.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-292587.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 681-013032.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 622-677280.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-061805.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-325804.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 632-748877.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-139794.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-144998.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-277037.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 622-684289.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Autorekin. Tel. 655-132769.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 602-490595.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 688-853894.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 629-872270.
- Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-910861.
- Emakume tituladuna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-737903.
- Emakume tituladuna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 636-517025.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-779980.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-199421.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-051991.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko. Tel. 634-256471.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 630-065397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-414947.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-852095.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-763558.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-694244.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 640-683398.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-844282.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-726941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 631-258718.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da nagusia zaintzeko. Astelehenerik ostiralera: 18:00-20:00. Tel. 616-703030.
- Sukaldaria behar da Eibarko negozio berri batean janaria etxera eramateko. Esperientziarekin. Tel. 657-773205.
- Kamarera behar da jatetxe batean asteburu eta jaiegunetarako. Esperientziarekin. Bidali curriculum: kamarera18@hotmail.com
- Emakumea behar da nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 607-540772.
- Ileaipaintzaile behar da asteburuetarako Eibarko ileapaindegi batean. Tel. 943-201853.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Batxilergo 2. Mailako ikasleak ingelesezko irakaslea behar du. Tel. 625-019711.
- Ingeniaritza Mekanikoko ikasleak klase partikularak ematen ditu. DBH eta Batxilergo ikasleentzat. Tel. 672-382451.
- DBH eta Batxilergo klase partikularak ematen dira. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Ingeleseko klase partikularak ematen dira, eskola errefortzu moduan edo azterketa ofizialen prestakuntzarako. Proficiency titularekin. Banaka edo talde murriztuak. Tel. 660-433571.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.3. Galdu/Aurkitu

- Granate koloreko motadun aterkia galdu nuen aurreko astean. Oparitutakoa da eta estimu handikoa. Tel. 690-795825. Adriana.
- Viceroy eskumuturreko galdu nuen domekan Ipurua inguruan. Balore sentimentala handia du. Tel. 660-840246.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak ginditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrria aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamos, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomedagaria Penintsulan eta Baskarretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autobuntzat. BEZ, garrailoa, matrakulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-ekaintza barne. Hyundai-ra Aldatu. Plana aplikatu daleke erabilitako auto baren truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Craking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertuta eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatzaieri lotuta. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien Km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



Isasi 36, EIBAR · 943 20 32 44
www.armeriaeskola.eus

**Egin apustu
etorkizunaren
alde!**



**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK**
Europa/Mundurako
bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK**
Erronketan oinarritutako
talde lana



**Egin apustu
DUALaren alde!**

IKASKETAK ETA LANA UZTARTUZ

Helburua:
2020rako ikasleen
erdia DUAL formatuan
aritzea



**ESKAINITZA
ZABALA**
Erdi eta goi
mailako
zikloak,
espezializa-
zioak



**LAN
POLTSA**
Langile
teknikoen
beharra



**+ Jardunaldiak
Apirilaren 12an
Armeria Eskolan**

**LAN AUKERA
ZABALA**
Enpresa
harreman estua



**GERTUKO
HARREMANA
eta ORIENTAZIO
PROFESIONALA**






2mó betaurreko graduatu

erreflexuen aurkako leiarrekin

99€

**GRADUAZIO
GUZTIETARAKO**

*Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira*

www.multiopticasgipuzkoa.com   

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa

**Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22
EIBAR**

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan